Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

***UDALBATZARRAK 2015EKO OTSAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA***

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 25 DE FEBRERO DE 2015**

| Asistentes/*Etorritakoak* |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA*** |
| CARLOS TOTORIKA IZAGIRRE |
| **CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK*** |
| LORENA LOPEZ GARCIA<br>NATIVIDAD ALONSO ESTALAYO<br>MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>MONICA MARIN PEÑUELAS<br>FRANCISCO JAVIER PEREZ NAVARRO<br>IKER SAENZ DE ZAITEGI PERRINO<br>JAVIER GOMEZ MARTINEZ<br>JOL GISASOLA GARAI<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA<br>FELIX PROL SALGADO<br>JOSE LUIS CLEMENTE ALBIZ<br>JOSE LUIS ARAUJO ARAUJO<br>FERNANDO LECUMBERRI GAISAN<br>ÓSCAR FRONTAURA GARCÍA |
| **SECRETARIO/*IDAZKARIA*** |
| JOSE ANTONIO FERNANDEZ CELADA |

| Ausentes/*Etorri ez direnak* |
|---|
| VIRGINIA ARROYO ABURTO<br>ROSA MARIA CABALLERO RUBIO |

*Udaletxeko bilkura aretoan, 2015(e)ko otsailaren 25ean 20:00 (e)(a)n, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak lehenengo deialdian bildu dira, Ohikoa bilkuran.*

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 20:00 del día 25 de febrero de 2015 , en primera convocatoria, se reúnen los/as miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión Ordinaria .

*Idazkariak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

Una vez comprobada por el Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1. *BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN LOTUTAKO EDONOLAKO INTERES ZUZEN ETA GARRANTZTSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

**1. INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

**2. *2014/12/10EAN BILKURAREN AKTA ONESTEA***

*Jarraian bozkatu egin dute gaia, eta emaitza ondorengoa izan da:*

**2. APROBAR EL ACTA DE FECHA 10/12/2014**

Seguidamente se procede a la votación con el resultado siguiente:

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|

*PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7*

*PP: Aldekoak 3*

*BILDU: Aldekoak 2 Abstenzioak 1*

*EAJ/PNV: Aldekoak 2*

PSE-EE/PSOE: A favor 7

PP: A favor 3

BILDU: A favor 2 Abstenciones 1

EAJ/PNV: A favor 2

***<u>Lehenengo erabakia:</u>***

***2014/12/10eko"Eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**<u>Primer acuerdo:</u>**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 10/12/2014, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

## 3. *ÓSCAR FRONTAURA GARCÍA BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ALTERNATIVA ERAIKITZEN ALDERDIAREN ORDEZKARI LEGEZ ZINEGOTZI KARGUAZ JABETZEA*

*Idazkariak hau azaltzen du: Galdera bat egingo dut, Administrazioko esparru guztietan kargu publikoez jabetzeko egiten dena, eta beraz, denentzat bakarra dena. Hain zuzen, hau da: Oscar Frontaura Garcia, zin egiten duzu edo hitz ematen duzu zure kontzientzia edo ohoreagatik zintzo beteko dituzula Ermuko Udaleko zinegotzi-karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuko funtsezko arau gisa zainduz eta zaindu araziz?*

## 3. TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL POR BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ALTERNATIVA ERAIKITZEN DE ÓSCAR FRONTAURA GARCÍA

El Secretario procede a explicar que a proceder a hacer una pregunta para la toma de posesión de los cargos públicos en todos los ámbitos de la Administración y por tanto es única para todos, la pregunta en concreta es la siguiente: Óscar Frontaura García, jura o promete por su conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Ermua, con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como Norma fundamental del Estado?

*Frontaura jaunak hau erantzun du: "Hau ez da nahi dudan Konstituzioa, nire Konstituzioa Euskal Herriko Errepublika sozialistarena da; horregatik, Konstituzio hau onartzen dut legea aginduta.*

El Sr. Frontaura responde, "Hau ez da nahi dudan Konstituzioa, nire Konstituzioa Euskal Herriko Errepublika sozialistarena da; horregatik, Konstituzio hau onartzen dut legea aginduta.

**4. *BERDINTASUNEKO ZINEGOTZIGOAK ETA BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAK AURKEZTUTAKO MARTXOAREN 8A-EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURAN AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA ONESTEA***

*Alonso andreak hau esan du: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailak, Berdintasun Udal Kontseiluarekin elkarlanean, EUDELen gomendioetan oinarritutako erakunde-deklarazioa aurkezten du. EUDELek aldez aurrek deklarazio bat bidali du, eta Udal bakoitzak egokitu egin du.*

*Kasu honetan, EUDELek azpimarratzen du emakumeen partaidetza sustatu eta ahalbidetu behar dugula Udaletako esparru guztietan. Hain zuzen ere, guk Berdintasun Kontseiluaren bidez egiten dugu. Kontseiluan, emakume-elkarteen ordezkariak daude, bai eta gurekin parte hartzeko edo elkarlanean jarduteko animatzen diren emakumeak ere.*

*Hilean behin elkartzen gara, hileko azken asteazkenean, eta horrez gain, behar den bakoitzean, ohiz kanpoko bilera egiten dugu.*

*Aspaldi hasi ginen puntu hau lantzen; dena den, ez dago sobera deklarazio bat onartzea, partaidetza hori sustatzen jarraitzeko.*

**4. APROBAR LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 8 DE MARZO-DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES PRESENTADA POR LA CONCEJALÍA DE IGUALDAD Y EL CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD**

La Sra. Alonso manifiesta que, desde el departamento de Igualdad entre mujeres y hombres y también con la colaboración del Consejo Municipal de Igualdad presentamos la Declaración Institucional basada en las recomendaciones de EUDEL que previamente nos envía una declaración y en este caso la adaptamos cada Ayuntamiento.

En este caso insiste EUDEL en que tenemos que animar y promocionar y facilitar la participación de las mujeres en todos los ámbitos en los que nos movemos en los Ayuntamientos, concretamente nosotras lo hacemos a través del Consejo de Igualdad donde todas aquellas mujeres representantes de asociaciones o a título personal se animal a participar y colaborar con nosotras.

Nos reunimos una vez el último miércoles de cada mes, y después extraordinariamente cuando lo requiere la ocasión.

Estamos trabajando este punto desde hace muchos años, no obstante nunca está de más seguir insistiendo en aprobar una Declaración en la que esa participación se

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

siga promoviendo.

*Oraingoan, asko pozten gaituen zerbait aipatzen du deklarazio horrek bereziki: Martxoaren 8a plaza eta Berdintasunaren pasealekua duela gutxi inauguratu izana. Ildo horretan, berriro esaten dugu, parkean bertan dagoen oroitzapenezko plakak adierazten duenaren arabera, martxoaren 8a eta azaroaren 25a egunero hartu behar direla aintzat; urteko egun guztiak martxoaren 8a dira.*

En esta ocasión hacer mención especial a algo que nos tiene muy contentas que es la reciente inauguración de los lugares de Plaza de 8 de marzo, el Paseo de la Igualdad e insistimos una vez más y lo indica la placa conmemorativa que está en el propio parque de que el 8 de marzo así como el 25 de noviembre son fechas que no sólo se tienen que activar el día que corresponde sino que todos los días del año tienen que ser 8 de marzo.

*Den-denak animatzen ditugu parte hartzera.*

Animamos a todas y a todos a que participen.

*Deklarazioaren punturik azpimarragarriena irakurriko dut: "Ermuko Udalak mugimendu feminista eta berdintasunaren aldekoa sustatzeko eta horrekin bat egiteko konpromisoa hartzen du, programa eta baliabide guztiak mantenduz eta ekintzari laguntzeko behar diren itunak sendotuz. Halaber, berdintasunaren aldeko politika lantzen jarraituko du herrian, herritarrak gizarte eta politikan parte hartzera bultzatuz, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko". Hau da, hain zuzen, onartu behar den puntua.*

Voy a proceder a leer el punto más destacable de la declaración: *"El Ayuntamiento de Ermua se compromete a impulsar, apoyar y fortalecer el movimiento feminista y preigualitario, manteniendo programas y recursos y reforzando las alianzas necesarias para apoyar su acción. Igualmente seguir apoyando una política local de igualdad favoreciendo la participación socio-política ciudadana para conseguir la igualdad real de mujeres y hombres"*. Este es el punto concreto que se trae a aprobar en la propia declaración.

*Jarraian bozkatu egin dute gaia, eta emaitza ondorengoa izan da:*

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Sáenz de Zaitegi, Gómez, Frontaura, Gisasola eta Araiztegi.*

Seguidamente se procede a la votación con el resultado siguiente:

Votos a favor: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Sáenz de Zaitegi, Gómez, Frontaura, Gisasola y Araiztegi.

***Bigarren erabakia:***

**Segundo acuerdo:**

*"Aurtengo Martxoaren 8ak, Emakumeen Nazioarteko Egunak, esangura berezia dauka gure udalerriarentzat, egiazko hiri-espazio fisiko bat, eta aldi berean sinbolikoa, daukagulako mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko emakumeen ekintza aintzat hartzeko eta merezi duen balioa emateko: hiri-espazio berri horiek Martxoaren 8a plaza eta Berdintasunaren Pasealekua dira.*

*Horiek egotea udal erakundeak eta herritarrek, berdintasunaren aldeko emakume eta gizonen elkarteak batez ere, hartutako kompromiso eta itunei esker gertatu da.*

*Berdintasuneko Udal Kontseiluak borroka horrekin konprometitutako elkarte eta emakumeak biltzen ditu bere baitan duela hainbat hamarkada, eta emakume horiek beraien aztarnak utzi dituzte, aztarna eraldatzaileak, funtsezko solaskide izan direlarik berdintasunaren aldeko udal politikak gauzatzeko; egun guztiak "Martxoaren 8a" balira bezala, pausoz pauso, egunez egun lortutako eskubide guztien alde lan egin beharra aldarrikatzen jarraitzen duten emakumeak.*

*Herritar guztien eginkizuna da eskubide horiek defendatzea, emakumeena eta gizonena, eta jarrera aktiboa erakutsi behar dute gizarte justuagoa eta berdintasunezkoagoa aldarrikatzeko.*

*Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, berriz ere, Berdintasuneko Zinegotzigoak eta Emakumeen Udal Kontseiluak.*

**"La conmemoración del 8 de marzo, Día internacional de las Mujeres, tiene este año para nuestro municipio un significado especial, al contar con un espacio urbano real, y a la vez simbólico, de reconocimiento y puesta en valor de la acción del movimiento feminista y de mujeres por la igualdad: la plaza 8 de marzo y el paseo de la igualdad.**

**Su existencia ha sido posible gracias al compromiso y a las alianzas entre la institución municipal y la ciudadanía, en especial con el movimiento asociativo de mujeres y hombres por la igualdad.**

**El Consejo municipal de Igualdad aglutina, desde hace décadas, a las asociaciones y a las mujeres comprometidas en esa lucha que ha dejado sus propias huellas transformadoras, y las reconoce como interlocutoras fundamentales en el desarrollo de las políticas municipales de igualdad; mujeres que siguen proclamando la necesidad de trabajar como si todos los días del año fueran "8 de marzo", en favor de unos derechos conquistados paso a paso, día a día.**

**Su defensa es algo que atañe a toda la ciudadanía, mujeres y hombres, que han de mostrar una posición activa en la reivindicación de una sociedad más justa y equitativa.**

**Una vez más, con motivo del Día internacional de las mujeres, la Concejalía de Igualdad y el Consejo municipal de la Mujer..**

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

***Azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela aurten, Martxoaren 8an, eta urteko egun guztietan emakumeen mugimenduak antolatzen dituen ekimenekin bat egitea.***

***Herritar guztiei, eta bereziki emakumeei, deitzen diete ekintzetan parte hartu eta antola daitezen, eta, historian zehar, gizarte justu eta berdintasunezkoagoa lortzeko emakumeek egindako ekarpenari balioa eman diezaioten.***

***Horretarako Ermuko Udalak mugimendu feminista eta berdintasunaren aldekoa sustatzeko eta horrekin bat egiteko konpromisoa hartzen du, programa eta baliabide guztiak mantenduz eta ekintzari laguntzeko behar diren itunak sendotuz. Halaber, berdintasunaren aldeko politika lantzen jarraituko du herrian, herritarrak gizarte eta politikan parte hartzera bultzatuz, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko".***

**Subrayan la importancia de que se apoyen las iniciativas del movimiento de mujeres este 8 de marzo y todos los días del año.**

**Llama a toda la ciudadanía, en especial a las mujeres, para que se organicen y se sumen a la acción, y pongan en valor la aportación de las mujeres para la consecución de una sociedad más justa e igualitaria a lo largo de la historia.**

**Para ello, el Ayuntamiento de Ermua se compromete a impulsar, apoyar y fortalecer el movimiento feminista y pro-igualitario, manteniendo programas y recursos y reforzando las alianzas necesarias para apoyar su acción. Igualmente, seguirá apoyando una política local de igualdad, favoreciendo la participación sociopolítica ciudadana para conseguir la igualdad real de mujeres y hombres".**

***5. ANIMALIEN EDUKITZA ETA BABESA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA ETA, ORDENANTZA BERRIAN JASOTZEN DIREN HELBURUAK LORTZE ALDERA, HERRITARREN PARTAIDETZA-KANPAINA BAT EGITEA ONESTEARA***

*Prol jaunak hitza hartu eta hau adierazi du: Komeniko litzateke puntu hori aho batez onartzea; izan ere, problematika hor dago, eta ez da gerra politikoa egiteko garaia, proiektu bat adostekoa baizik, azken emaitza adostasunekoa izan dadin.*

**5. APROBAR EL PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES Y DE REALIZACIÓN DE UNA CAMPAÑA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA PARA CORREGIR LOS OBJETIVOS QUE RECOGE LA NUEVA ORDENANZA**

El Sr. Prol manifiesta que, sería conveniente que se aprobara por consenso ya que la problemática es la que y no era cuestión de hacer guerra política sino que consensuar un proyecto que nos vaya a potenciar un resultado final de consenso.

*Esan behar da 2010eko ordenantzaren hasierako onespenean sartu zela gaur hizpide dugun aldaketa hau.*

*Badakizue edukiak zein diren. Eskerrak eman nahi dizkiet interesa agertu zuten pertsonei, egindako ahaleginagatik eta zinegotzi honi proiektu hau aztertzean eta gaur onartzera dakartzagun helburuak zehaztean emandako laguntzagatik.*

*Animaliak babesteko Legeak animalien aisiarako eta olgetarako lekuak behar direla ezartzen du, eta gure ordenantzak ez zuen hori aintzat hartzen. Beraz, ordenantzaren aldaketa honen helburua erregulazio horretan sakontzea da, besteak beste.*

*Esan beharra dago Ermuan 937 txakur daudela erroldatuta, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren arabera.*

*Poltsa higienikoak banatuko ditugu Poltsak nahi dituzten pertsonek Abiapuntura joan behar dute, animaliari eta txipari buruzko informazioarekin, eta emango dizkiete.*

*Azaletik, hauek dira ordenantzaren aldaketak. Zenbait lekutan, orain arte bezala, hiru seinale-mota egongo dira, denak bertikalak: "animalia solteak 24 orduetan", "animalia solteak zenbait ordutan" eta "debekatuta animalia solteak izatea". Beste leku batzuk egongo dira: zurezko hesiz itxiak, hesi metalikoz itxiak (Sakona Ongaraiko parkea), eta zurezko hesiak eta heskaiak konbinatuko dituztenak (adibidez, Valdespinako Markesa plaza), animaliek, lasterka egiten badute, oztopo fisikoa izan dezaten. Leku bakoitzean, dagokion seinalea egongo da.*

Decir que así también fue en la aprobación inicial de la ordenanza en el año 2010 la modificación que hoy se trae.

Sabéis los contenidos. Agradecer a las personas que se interesaron, el esfuerzo y la colaboración que por lo menos este concejal ha tenido en todo el estudio del proyecto y en la definición de los objetivos que hoy se traen a aprobar.

Teniendo en cuenta la Ley de Protección de animales en la que se estipula la necesidad de tener espacios de esparcimiento y recreo de los animales, nuestra ordenanza carecía de esta indicación y lo que tratamos en esta modificación de la ordenanza, entre otras cuestiones, es profundizar en esa regulación.

Comentar que en Ermua tenemos censados, según el Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco 937 perros.

Se van repartir porta bolsas higiénicas. Las personas que las requieran deberán presentarse en Abiapuntu con la documentación relativa al animal con el chip y automáticamente se les facilitará.

En grandes líneas las modificación de la ordenanza serían las siguientes: van a existir tres tipos de señales identificativos, señales verticales en todo caso, que estarán en sitios dónde ponga "animales sueltos 24 horas", "animales sueltos unas horas determinadas" y "prohibido animales sueltos" como hasta ahora. Existen otros lugares que son: cerrados con vallas de madera, lugares cerrados con vallas metálicas como Sakona y el Parque Ongarai, y lugares como puede ser el parque Marqués de Valdespina que lleva una combinación entre trozos vallados de madera y un trozo de setos, en esa identificación, para que el animal, en todo

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

caso si corre, tenga una barrera física. En cada zona existirá la identificación correspondiente.

*Egin nahi dugun aldaketa horren bidez, 11.500 metro egongo lirateke, guztira, leku horietan, baina horrek ez du esan nahi txakurrak ezin direla beste leku batzuetan egon; besteak beste, Berano-Txikiko errepidean egon daitezke.*

Con esta modificación que se pretende estaríamos hablando de 11.500 metros en definición de lugares cosa que no quiere decir que no haya más espacios donde podrán estar, por ejemplo por la carretera de Berano-Txiki, etc…

*Horretarako, Udalak 39.000 € inguruko inbertsioa egin du (poltsak, hesiak, lekuen identifikazio-seinaleak, triptikoa, etab.).*

Decir que la inversión que este Ayuntamiento ha realizado en ese sentido fonda los 39.000€ para la adaptación tanto en las bolsas, como vallados, identificación de lugares, tríptico, etc.

*Poztu egiten nau aldaketa honek talde politiko guztien oniritzia izateak. Gainera, proiektu hau ondo burutzeko gurekin elkarlanean aritu diren pertsonen oniritzia ere lortu dugu.*

Decir que me congratulo que sea una modificación que creo que tiene el visto bueno de todos los grupos políticos y asimismo tiene el visto bueno de las personas con las que hemos estado trabajando para conseguir que este proyecto se lleve a buen término.

*Jarraian bozkatu egin dute gaia, eta emaitza ondorengoa izan da:*

Seguidamente se procede a la votación con el resultado siguiente:

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Sáenz de Zaitegi, Gómez, Frontaura, Gisasola eta Araiztegi.*

Votos a favor: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Sáenz de Zaitegi, Gómez, Frontaura, Gisasola y Araiztegi.

***<u>Hirugarren erabakia</u>***

***"Ermuko udalerriko espazio publikoan pertsona eta txakurren bizikidetzan izan diren zailtasunen ondorioz, jabeek animaliak paseatzera eta eginkariak egitera eramaten dituzten hainbat lekutan animalia asko biltzen direlako, eta gero, horien gorotzak hartu eta zakarrontzi edo edukiontzi batera bota***

**<u>Tercer acuerdo:</u>**

**"Ante la problemática generada por las dificultades de convivencia de personas y perros en el espacio público del municipio de Ermua, manifestada en la concentración de animales en determinados lugares a los que sus dueños/as los llevan para pasear e, incluso, hacer sus necesidades, sin que**

*gabe, bertan utzi, eta garbitasun arazoez gain higiene eta osasun publikokoak sortzen dituztelako, Ermuko Udalak, gure auzotarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanik, txakurren jabeekin lan-bilerak egin ondoren -beraiek behar eta espero dutena argi eta garbi jakiteko, gure inguruko beste udalerri batzuetan ildo horreetatik izan diren esperientziak ezagutzeko, eta konponbiderik egokiena proposatu ahal izateko-, beti ere udalaren eskumenen esparruan eta bere baliabideen mugen baitan, honako neurriak hartuko ditu erantzun beharreko beharrizanen neurriko erantzuna emateko:*

**luego recojan los excrementos y los depositen en una papelera o contenedor próximo, que ocasiona problemas de limpieza pero también de higiene y salubridad pública, el Ayuntamiento de Ermua, como administración más cercana a las necesidades de nuestros vecinos y vecinas, y tras las reuniones de trabajo mantenidas con personas dueñas de perros para poder identificar claramente sus expectativas y necesidades, conocer experiencias de esta índole desarrolladas en otros municipios de nuestro entorno y poder proponer la solución más adecuada, siempre dentro de los límites competenciales propios y de la limitación de los recursos disponibles, adopta las medidas siguientes con el objeto de ofrecer una respuesta proporcional a las necesidades a satisfacer.**

*1. Animalien edukitza eta babesa arautzen duen udal ordenantza aldatzea, ondorengo xedapen gehigarria eransteko:*

**1ª. Modificar la ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales a fin de añadir la siguiente disposición adicional:**

*1. Txakurrak eta pertsonak batera ibili ahal izateko eta jostatzeko espazio egokiak prestatzea, lorategi eta parke publikoetan solte egon ahal izateko, horretarako baldintzak ondokoak izanik:*

- *24 orduetarako lekuak: txakurrak eguneko edozein momentutan solte egongo dira, ordutegi-mugarik gabe:*

*a) Betiondo (kiroldegi-eraikinaren inguruetan).*

*b) Ongaraiko zelaia (Institutuaren gainaldean).*

*c) Santa Anako zelaia.*

**1. Habilitar espacios compartidos idóneos para el paseo y esparcimiento de los perros, que podrán estar sueltos en los jardines y parques públicos y condiciones que a continuación se indican:**

- **Zona 24 horas: los perros podrán estar sueltos en cualquier momento del día, sin limitación horaria:**

**a) Zona en Betiondo (inmediaciones del edificio polideportivo).**

**b) Campa en Ongarai (sobre el Instituto).**

**c) Campa en Santa Ana.**

*d) Harrobiko zelaia (Okin Zuriko kirol instalazioen gainaldean).*

*e) Ego ibaiaren ondoko ingurua (Sallabenteko parkearen atzealdean).*

*f) Monte Hermoso ingurua.*

*g) Urtiako zuzkidura-ingurua.*

- *Ordutegi mugatua izango duten lekuak: jarraian aipatzen diren lekuetan txakurrak gaueko 22:00etatik hurrengo eguneko 8:00etara eta14:30etik 16:30era egon ahali zango dira solte:*

*h) Sakonako parkea.*

*i) Santa Anako parkea.*

*j) Valdespina parkean petanka-jolas inguruaren ondoko espazioa.*

*2. Aipaturiko kasu guztietan, txakurrak solte egon badaitezke ere, jabeek beraien animaliak aktiboki zaintzeko obligazioa izango dute beti, istripuak edo leku berean dauden pertsonei sor diezazkieketen kalteak saihesteko, eta txakurren egintkariak, kasuan kasu, jasotzeko.*

*3. Espazio horiek behar bezala egokituta egongo dira eta beharrezko segurtasun elementuak edukiko dituzte eremuak mugatzeko, pertsona eta animalien segurtasuna bermatuz, inguruetan haurrentzako jolaslekuak edo*

**d) Campa en la cantera (sobre las instalaciones deportivas de Okinzuri).**

**e) Zona de ribera del río Ego (en la parte trasera del parque de San Lorenzo).**

**f) Zona en Monte Hermoso.**

**g) Zona dotacional de Urtia.**

- **Zona con limitación horaria: en los lugares que se mencionan a continuación los perros podrán estar sueltos, desde las 22 horas hasta las 8 horas del día siguiente, y de 14:30 a 16:30 horas:**

**h) Parque de Sakona.**

**i) Parque de Santa Ana.**

**j) Espacio junto a la zona de juego de petanca en el parque de Valdespina.**

**2. En todos los casos, la posibilidad de que los perros estén sueltos se establece sin perjuicio de la obligación de sus dueños/as de mantener una vigilancia activa sobre los animales en evitación de accidentes u otros perjuicios a las personas que también puedan encontrarse en el mismo lugar, y recoger, en su caso, las deyecciones de los perros.**

**3. Estos espacios estarán debidamente acondicionados y dotados de elementos de seguridad a fin de delimitar su ámbito, para preservar la seguridad de personas y animales, en particular, si en las inmediaciones existen zonas de juegos de niños/as o una carretera.**

*errepidea daudenean batez ere.*

*4. Halaber, espazio horietan seinaleak jarriko dira, erabilera-ordutegia ere adieraziz, jende guztiak jakin dezan, eta zakarrontziak inguru guztian, espazio horien erabiltzaileek beraien txakurren gorozkiak botatzeko.*

*2. Udal Teknika Alorrari dagokio lehen aipatutako baterako espazio horiek egokitzeko proiektu teknikoa egitea, hesiak eta heskaiak bezalako segurtasun-elementuen kopuruari eta toki bakoitzari arreta berezia jarriz. Proiektu tekniko horretan horien guztien eraikuntza-ezaugarriak finkatuko dira, altuera eta, nola ez, kostu ekonomikoa eta amaitzeko epea, iragarki-seinaleak eta, behar izanez gero, baterako espazio bakoitzaren inguruetan jarri beharreko zakarrontzi berriak.*

*3. Animalien edukitza eta babesa arautzen duen udal ordenantzaren V. Titulua aldatzea, non zehapen-erregimena definitzen den, idatzi berria den ondorengo xedapena 66. artikulu legez eransteko.*

*66. Artikulua. Zehapen-prozedura*

*1. Zehapenen ezarpena lege-prozedurari edo gai honetan zehapen-boterea egikaritzeko erregelamenduz ezarritakoari egokituko zaio, ondorengoa zehaztuta:*

*a) Zehapen-prozedurari ofizioz*

**4. Asimismo se dotará de la oportuna señalización a estos espacios, incluida la especificación del horario de uso, para general conocimiento, así como de papeleras en las inmediaciones donde las personas usuarias de dichos espacios puedan depositar las deyecciones de sus perros.**

**2º. Corresponde al Área Técnica municipal la elaboración del correspondiente proyecto técnico para acondicionar los espacios compartidos antes mencionados, con especial atención a la dotación de elementos de seguridad como vallados o setos, a cada zona, en el que se definan sus características constructivas, altura y, por supuesto, coste económico y plazo de ejecución, las características de las señales anunciadoras y, en su caso, las nuevas papeleras que deban instalarse en las inmediaciones de cada espacio compartido.**

**3º. Modificar el Título V de la ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales, que regula el régimen sancionador, a fin de adicionar la siguiente disposición como artículo 66, de nueva redacción:**

Artículo 66. Procedimiento sancionador

**1. La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia, con las especificaciones siguientes:**

**a) El procedimiento sancionador se incoará de oficio mediante denuncia de los/as Agentes de**

***ekingo zaio, Toki-poliziaren agenteek salaketa egin ondoren.***

***b) Toki-poliziak egindako salaketa eta salatutako pertsonari unean bertan jakinarazitakoa, zehapen-prozeduraren hasiera-egintza izango da, ondorio guztietarako.***

***c) Honako ordenantza honetan ezarritakoa hausteagatik egindako salaketetan ondorengoa jaso beharko da beti ere:***

- ✓ ***Ustezko arau-haustea egin duen animaliaren titular den pertsonaren identifikazioa, bere izena eman nahi ez duenean salbu.***
- ✓ ***Ustez egindako arau-haustearen deskribapen laburra, zergatia, data eta ordua zehaztuz.***
- ✓ ***Hautsi den ordenantzaren artikulua.***
- ✓ ***Ezar litekeen zehapena.***
- ✓ ***Salaketa jarri duen agentearen identifikazio-zenbakia.***

***d) Toki-poliziako agentearen salaketak salatutako egintzen eta horiek egin dituzten pertsonen nortasunaren fede***

**la Policía Local.**

**b) La denuncia formulada por los/as Agentes de la Policía Local y notificada en el acto a la persona denunciada constituye el acto de iniciación del procedimiento sancionador, a todos los efectos.**

**c) En las denuncias por infracción de lo dispuesto en la presente Ordenanza deberá constar, en todo caso:**

- ✓ **La identificación de la persona titular del animal que hubiese cometido la supuesta infracción, salvo que se niegue a facilitar su filiación.**
- ✓ **Una descripción sucinta de la infracción presuntamente cometida, con mención del motivo, fecha y hora.**
- ✓ **El artículo de la Ordenanza infringido.**
- ✓ **La sanción que pudiera corresponder.**
- ✓ **El número de identificación profesional del/de la Agente denunciante.**

**d) Las denuncias formuladas por los/as Agentes de la Policía Local darán fe, salvo prueba en contrario, de los hechos denunciados y de la identidad de quienes los hubieran cometido, así como, en su**

*emango du, kontrakoa frogatu ezean, bai eta, hala denean, salaketaren jakinarazpenarena ere, nahiz eta agenteek salatutako egintzaren ahalik eta elementu frogagarri gehien aurkeztu beharko dituzten beti ere.*

*e) Salaketa jakinarazi denean, salatutako pertsonak hogei eguneko epea izango du borondatezko ordainketa egiteko -isunaren zehapena murriztua izanik- edo beharrezkotzat dituen alegazioak egin eta frogak proposatu eta aurkezteko.*

*f) Salatutako pertsonak aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan ordaintzen badu isuna, zehapen-prozedura laburtuari jarraituko zaio eta, hala egiten ez badu, ordea, zehapen-prozedura arruntari jarraituko zaio.*

*g) Behin isuna, berori jakinarazi eta hogei eguneko epearen barruan ordaintzen bada, amaitutzat emango da zehapen-prozedura, horren ondorioak honakoak izanik;*

- ✓ *Isunaren zenbatekoaren %50aren murrizketa.*
- ✓ *Alegazioak aurkezteari uko egitea. Alegazioak aurkeztuko balira, ez aurkeztutakotzat joko*

**caso, de la notificación de la denuncia, sin perjuicio del deber de aquéllos/as de aportar todos los elementos probatorios que sean posibles sobre el hecho denunciado.**

**e) Notificada la denuncia, la persona denunciada dispondrá de un plazo de veinte días naturales para realizar el pago voluntario con reducción de la sanción de multa, o para formular las alegaciones y proponer o aportar las pruebas que estime oportunas.**

**f) Si la persona denunciada efectúa el pago de la multa en las condiciones indicadas en el párrafo anterior, se seguirá el procedimiento sancionador abreviado y, en caso de no hacerlo, el procedimiento sancionador ordinario.**

**g) Una vez realizado el pago voluntario de la multa dentro del plazo de veinte días naturales contados desde el día siguiente al de su notificación, se tendrá por concluido el procedimiento sancionador con las siguientes consecuencias:**

- ✓ **La reducción del 50 por ciento del importe de la sanción de multa.**
- ✓ **La renuncia a formular alegaciones. En el caso de que fuesen formuladas se tendrán por no presentadas.**
- ✓ **La terminación del**

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

***lirateke automatikoki..***

- ***Ordainketa egiten den egunean bertan prozedura amaitu egingo da, espresuki ebazpenik eman beharrik gabe.***

- ***Administrazio-bidea agortu egingo da, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren aurrean bakarrik errekurritu ahal izango delarik.***

- ***Administraziorekiko auzien errekurtsoa aurkezteko epea ordainketa egin eta biharamunean hasiko da.***

- ***Bide administratiboan zehapena irmoa izango da, ordainketa egiten den unean bertan, bere ondorioak biharamunetik aurrerakoak izanik.***

***h) Prozedura laburtuan ordaindu ez diren isunak zehapenaren irmotasun-dataren ondorengo hogei egunen buruan ordaindu beharko dira.***

***i) Aurreko paragrafoan ezarritako ordainketa-epea isuna ordaindu gabe iragaiten bada, premiamendu prozeduraz burutuko da berorren ordainarazpena. Horretarako zordunari jakinarazitako premiamendu-probidentzia, organo eskudunak egindakoa,***

**procedimiento, sin necesidad de dictar resolución expresa, el día en que se realice el pago.**

- **El agotamiento de la vía administrativa siendo recurrible únicamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.**

- **El plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo se iniciará el día siguiente a aquél en que tenga lugar el pago.**

- **La firmeza de la sanción en la vía administrativa desde el momento del pago, produciendo plenos efectos desde el día siguiente.**

**h) Las multas que no hayan sido abonadas durante el procedimiento abreviado deberán hacerse efectivas dentro de los veinte días naturales siguientes a la fecha de la firmeza de la sanción.**

**i) Vencido el plazo de ingreso establecido en el apartado anterior sin que se hubiese satisfecho la multa, su exacción se llevará a cabo por el procedimiento de apremio. A tal efecto, será título ejecutivo la providencia de apremio notificada a la persona deudora, expedida por el órgano competente.**

***izango da betearazpen-titulua.***

***2. Arau administratiboa hautsi duten egintzak arau-hauste penala suposatu lezaketenean, organo judizial eskudunari emango zaiio jakitera eta hasitako zehapen-prozedura etenda geratuko da, agintari judizialak ebazpena eman arte, nahiz eta Udalak bidezkotzat jotzen dituen kautela-neurriak ere har ditzakeen gaiaren inguruan.***

***4. Animalien edukitza eta babesa arautzen duen udal ordenantzaren 59. artikuluaren 1. atala aldatzea, ondoren jasotzen den moduan:***

***59. artikulua, 1. Honako ordenantzaren arauak hautsi ezkero 100€tik 500€ra bitarteko isunak ezarriko dira, ondorengo eskalaren arabera:***

***a) Arau-hasute arinak: 100€tik 200€ra.***

***b) Arau-hauste larriak: de 201€tik 300€ra.***

***c) Arau-hauste oso larriak: de 301€tik a 500€ra.***

***5. Txakurren jabeek beraien animalien eginkariak ez jasotzeak dakarren arazoaz jabetu eta motibatzeko eta gure parke, lorategi eta kaleen garbitasuna hobetzeko, Udalak poltsa-eramatekoa eta lehen poltsa-paketea emango die txakurren jabeei, beraien animalien eginkariak jaso jasotzeko.***

**2. Cuando los hechos constitutivos de infracción administrativa pudieran ser constitutivos de infracción penal, se pondrán los mismos en conocimiento del órgano judicial competente, quedando suspendido el procedimiento sancionador incoado en tanto la autoridad judicial no se haya pronunciado, sin perjuicio de la adopción por parte del Ayuntamiento de las medidas cautelares procedentes.**

**4º. Modificar el apartado 1 del artículo 59 de la ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales, en los términos siguientes:**

**Artículo 59, 1. Las infracciones a la presente Ordenanza serán sancionadas con multas de 100€ a 500€ de acuerdo con la siguiente escala:**

**a) Las infracciones leves, de 100€ a 200€.**

**b) Las infracciones graves, de 201€ a 300€.**

**c) Las infracciones muy graves, de 301€ a 500€.**

**5º. Como acción de motivación y concienciación sobre el problema que representa que las personas propietarias de animales no recojan los excrementos de sus animales, y mejorar la limpieza de nuestros parques, jardines y calles, el Ayuntamiento procederá a realizar el suministro de un portabolsas y un primer paquete de bolsas para recoger los excrementos de los perros, entre las personas dueñas de perros.**

**6º. Asimismo, el Ayuntamiento programará la realización de una campaña medioambiental contando con la**

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

***6. Halaber, Udalak, parte hartu nahi duten txakurren jabeen partaidetzarekin, ingurumen-kanpaina bat programatuko du, udalerriko parke, lorategi eta kaleetan maskoten eginkaririk egon ez dadin, helburua herritarrak arazo honetaz jabetzea eta maskoten eginkariak jaso gabe utziz legea betetzen ez duten pertsonen aurka neurriak hartzea izanik.***

***7. Animalien edukitza eta babesa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketaren inguruan hartutako erabakiak 30 lanegunez jendaurrean erakustea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, pertsona interesdunek aztertu eta alegazio eta iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten.***

***8. Jendaurreko informazio-aldi horretan inork alegaziorik aurkeztu ezean, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira, gai honen inguruan beste erabakirik hartu beharrik gabe. Interesdunek jendeari arreta egiteko orduetan aztertu ahal izango dute espedientea, eta egokitzat jotzen dituzten ohar, alegazio eta iradokizunak egin ahal izango dituzte".***

**participación de las personas dueñas de perros que deseen participar voluntariamente, para frenar la existencia de excrementos de las mascotas en los parques, jardines y calles del municipio, cuyo objetivo es concienciar a la población sobre este problema y actuar frente a aquellas personas que no cumplen con la ley y no recogen los excrementos de sus mascotas.**

**7º. Someter a información pública los acuerdos adoptados en relación con la modificación de la ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales, durante un plazo de 30 días hábiles, mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento para el examen y formulación de alegaciones y sugerencias por parte de las personas interesadas.**

**8º. Entender elevados a definitivos los acuerdos adoptados sin necesidad de nuevo acuerdo, si durante el plazo de exposición, no se formulasen alegaciones. El expediente podrá ser examinado en horario de atención al público por cuantas personas se consideren interesadas y formular cuantas observaciones, alegaciones y observaciones que estimen pertinentes".**

## 6. *HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN BETIKO ONESTEA*

*Totorika jaunak hitza hartu eta hau adierazi du: Lan asko egin ondoren,*

## 6. APROBAR DEFINITIVAMENTE HEL PLAN GENERAL ORDENACION URBANA

El Sr. Totorika manifiesta que, tras mucho tiempo de trabajo cerramos esta

*amaiera ematen diogu hiru urtetik gorako etapa honi. Udalbatza honetako kideek ehunka eta milaka ordu eman dituzte. Denbora luzean egin dugu lan, eta eragile eta pertsona askok lagundu digute lan garrantzitsu eta horretan.*

*Amesteko denbora izan da, eta ikuspuntu askotatik aztertzeko ere bai; izan ere, argi eta garbi dago garai hauek aldaketa-garaiak direla. Aspaldian baliagarria izan zitekeenak eta Ermuko arazoak konpondu zezakeenak orain ez du balio, eta beraz, erronka berriak ditugu, tresna honekin konpondu beharrekoak. Tresna hau erabakigarria eta funtsezkoa da gai asko jorratzeko.*

*Esaterako, enpleguarekin lotutako gaiak, lurzoru gehiago eskainiz. Ingurumenari dagokionez, plan orokorraren bidez landu behar dugu, eta egiten ari gara. Adibidez, krisiak eragindako arazoak. Eta bizileku-mota berriak, eredu honetan goitik behera aldatu direnak; esaterako, askoz etxebizitza gehiago eskaintzen dira alokairuan, gazte eta adinekoentzat. Alegia, erronka berriak ditugu, eta erronka berri horiei aurre egiteko ikuspegi horretan proposatzen dugu plan orokor hau. Aurrekoekin alderatuta, nabarmen desberdina da, eta oso bestelako ezaugarriak ditu. Funtsean, dagoeneko azaldu dut, baina, oraindik ere, oinarrizko hiru edo lau elementu zehazteke daude.*

*Etxebizitzari dagokionez, beste eredu bat proposatzen da. Berritasun kuantitatibo eta kualitatibo bat dago: ahal bada, alokairuko 500 apartamentuko paketea egotea.*

*Bigarrenik, kirurgia-oinarriko etxebizitzak proposatzen dira; hau da, ez da hazkunde gehiagorik egongo, ez da lurzoru berrietan garapenik egingo. Hain zuzen, hau*

etapa de más de tres año de trabajo, de cientos y miles de horas por parte de los miembros de la Corporación, relevante que haya sido una tarea durante mucho tiempo y con muchos agentes y personas que han compartido un trabajo importante y difícil.

Ha sido tiempo para soñarlo para analizarlo desde muchos puntos de vista porque es más que evidente que los tiempos que vivimos son tiempos de cambios. Lo que hace año podría ser útil y resolver cuestiones en Ermua hoy no lo es y tenemos por lo tanto nuevos retos que a través de esta herramientas tenemos que intentar resolver. Esta herramienta es decisiva, es clave para trabajar muchos asuntos.

Por ejemplo temas relacionados con el empleo, ofertando nuevos suelos; respecto al medio ambiente es necesario que se articule a través del plan general y se hace, la atención a los problemas derivados de la crisis, por ejemplo, las nuevas formas residenciales que cambian totalmente en este modelo planteándose muchas más viviendas en claves de alquiler, por ejemplo, para jóvenes o tercera edad; es decir, tenemos nuevos retos y en este enfoque de atender estos nuevos retos es en el que se plantea este Plan General notablemente distinto a los anteriores con características totalmente diferenciadas de los anteriores y que básicamente he planteado ya pero decir que si tenemos que definir tres o cuatro elementos básicos.

En materia de vivienda se plantea un modelo nuevo lo que se plantea como novedad importante cuantitativa y cualitativamente es que haya un paquete si es posible de 500 apartamentos, en alquiler.

En segundo lugar, la vivienda que se plantea es vivienda en claves de cirugía, es decir, no hay crecimientos o desarrollos en suelos nuevos. Todo lo que se plantea es qué

*proposatzen dugu: zer egin ordainlekuaren eremuan, zer egin Okin-Zuriren eremuan, zer egin harrobiko lurzoruarekin… Hau da, etxebizitzak eskaintzen diren lurzoru berriak andeatutako erabileren berreskurapenarekin daude lotuta. Gainera, ez du zentzurik erabilera horiek bizileku-erabileren ondoan egoteak, eta hortaz, zentzuzkoa da erabilera horiek leku egoki batera joatea.*

*Beraz, bi elementu nagusi daude: apartamentuak eta kirurgia, Ermuko beste une ekonomiko eta historiko batzuetatik datorkiguna konpontzeko, gaur egun horri eusteak ez baitu zentzurik.*

*Enpleguaren eta industria-hazkundearen arloan, helburu garrantzitsu bat da, eta horretarako, Monroe azpian lurzoru berria egotea ahalbidetzen dugu. Ermuak ezin du enplegu-aukerarik galdu, garai hauek bereziki zailak baitira, eta nire ustez, beste hamarkada bat beharko dugu ateratzeko. Udalerri askok beren industria-sarea galdu dute, eta hori onartezina iruditzen zait. Ermuak ezin du onartu gazteek hemendik emigratu behar izatea, ezin izan ditugulako eskaini industriarako egokiak diren lurzoruak. Hori erronka erabakigarri bat da, eta konpontzen ari gara, Uretako bigarren fasearen garapenaren bidez.*

*Pertsonentzako hiria. Funtsezkoa da. Alegia, batzuetan esan dugun bezala, ia alderdirik politenetan, garrantzitsuenetan ari gara sartzen, ia, erosotasun- eta edertasun-giltzarriekin. Orain arte, Ermuak beste lehentasun batzuk zituen eta beste arazo batzuk konpondu behar zituen. Gaur egun, ordea, zenbait gune oinezkoentzat prestatzea ezinbestekoa da: bidegorriak egitea, gaur egun zentzurik ez duten*

hacemos con la zona del peaje, qué hacemos con la zona de Okin-Zuri, qué hacemos con el suelo del a cantera, es decir, los nuevos suelos donde se ofertan viviendas todos tienen una ligazón de recuperación de usos degradados y de usos que además es inconcebible que se encuentren pegados a los residenciales y que tiene todo el sentido que vayan a un sitio adecuado.

Por lo tanto dos grandes claves: apartamentos y cirugía para arreglar lo que en definitiva nos viene de otros momentos económicos e históricos de Ermua y que hoy no tiene sentido mantener.

Se plantea en materia de empleo y crecimiento industrial como un objetivo relevante y para ello posibilitamos que haya suelo nuevo debajo de Monroe. Ermua no se puede permitir que estando viviendo momentos especialmente difíciles y de los que creo que no vamos a salir en una década, perdamos oportunidades en materia de empleo. Hemos visto como municipios han perdido su tejido industrial y me parece que es absolutamente inaceptable. Ermua no puede permitirse que sus jóvenes tengan que emigrar porque aquí no hemos sido capaces de estar a la altura de ofrecer suelos adecuados para la implantación de las industrias; es un reto decisivo y lo estamos resolviendo con el nuevo desarrollo de la segunda fase de Ureta.

Ciudad para las personas. Elemento básico, es decir, estamos como algunas veces hemos dicho casi, casi entrando en los aspectos más bonitos, más relevantes con claves de comodidad de belleza y que hasta ahora Ermua tenía otras prioridades y otras materias que resolver pero hoy en día la peatonalización, el que funcionen carriles bicis, que se eliminen elementos de construcción que tuvieron sentido pero que

*elementuak kentzea (esate baterako, elizaren eranskina eta estanko zaharra, plazaren eta erretiratuen arteko gunearen arteko mugikortasuna errazteko), Eitzaga aldera pasealeku bat egitea, etab. Horiek guztiak Ermuko herritarren bizimodua hobetuko duten elementuak dira; segurtasuna eta erosotasuna handitu egingo dira, eta beraz, hiria nabarmen hobetuko da.*

hoy en día no lo tienen como por ejemplo el añadido de la iglesia, el estanco viejo para facilitar la movilidad entre la plaza y la zona de los jubilados, todos estos o el paseo que podamos hacer dirección Eitzaga son elementos que van a mejorar la calidad de vida de los ciudadanos de Ermua ganando en seguridad, ganando en comodidad, mejorando notablemente la ciudad.

*Beste hiru aparkaleku handi egitea proposatzen da. Serrerías Norteñas enpresaren behealdean, San Antonio aldean –egun trenbidea dagoen lekuan– eta Lomi-Power enpresaren behealdean egitea proposatzen da. Behar-beharrezkoak dira, eta publikoki kudeatuko dira; beraz, eskaintza garrantzitsua egingo da, prezio onean eta leku estrategikoetan.*

Se plantean tres nuevos grandes aparcamientos. Debajo de serrerías Norteñas, en la zona de San Antonio donde actualmente está la vía del ferrocarril, debajo de Lomi-Power, aparcamientos imprescindibles y gestionados desde lo público y que por lo tanto van a hacer una oferta relevante y a buen precio y en sitios estratégicos.

*Hori da hirigintza-planteamenduaren bidez proposatzen den oinarrizko ikuspegia, gaur onartuko duguna, on baderitzogu. Eta esan nahiko nuke lanordu asko eman ostean etapa bat amaitzen ari garela eta, horrekin batera, beste bati hasiera ematen diogula.*

Esta es la visión básica que se plantea a través del planeamiento urbanístico que vamos a proceder a aprobar hoy si lo tenemos a bien. Y yo quisiera decir que después de muchas horas de trabajo estamos cerrando una etapa y con ella abriendo otra nueva.

*Helburuak zehaztu ditugu eta, orain, gauzatu egin behar ditugu. Ez da papera mahai gainean ipintzen duguna. Ekonomia- eta finantza-azterketak daude, baina eztabaidatu egin behar ditugu. Nire iritziz, oso zentzuzkoak dira. Uste dut egokitzapen bat dagoela, krisiaren ondorioz hirigintza espekulatiboaren dinamika asko aldatu baita. Hemen, ez dago hirigintza espekulatiborik, ez da egon, eta une honetan ez dago; baina egokitzapen bat dago, erronka berriak kontuan hartuta, egoera berriak kontuan hartuta.*

Después de lo que aquí se definen como objetivos esto hay que convertirlo en realidad. No es papel lo que ponemos encima de la mesa. Hay análisis económico-financieros que si se discuten, se discuten, pero hay que discutirlos. Creo que son muy sensatos. Creo que hay una adaptación en previsión de que la crisis ha modificado notablemente toda la dinámica del urbanismo especulativo. Aquí no hay urbanismo especulativo, no lo ha habido y no lo hay en este momento sino que hay una adaptación a los nuevos retos a las nuevas circunstancias.

*10 urte barruko Ermua da, eta beharbada, 15 urte barrukoa.*

Es el Ermua dentro de 10 años y probablemente de 15.

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

*Eskerrak eman nahi dizkizuet denoi, gogoz lan egin duzuelako, lan asko egon da eta. Dokumentu hau egiteko, ordu askoko lana egin dute erredakzio-taldeak eta zinegotziek, eta bilera asko egin dira Udaletik kanpo, interesa izan dutenentzat; izan ere, deialdi espezifikoak egin dira bai Lobianon bai auzoetan. Hirigintza Kontseiluak bilerak egin zituen, eta prestakuntza eman zaie hain gai zailari buruz gutxi zekiten zinegotziei. Gainera, Aldizkari Ofizialera, inkestetara, askotariko argitalpenetara eta abarretara jo dugu. Nire ustez, parte hartzeko eta partekatzeko interesa izan dutenek aukera izan dute. Hau ez da alderdi politiko baten edo talde ziztrin baten hiri-proiektua; denon artean eraikiko dugun Ermua da. Beraz, parte hartzeko aukera eman zaie Ermuko biztanleei, eta zerbait esan nahi izan duenak aukera izan du, eta eztabaidatu nahi izan duenak ere aukera hori izan du.*

Daros las gracias a todos los que habéis trabajado con ganas porque ha habido muchísimo trabajo. Este documento ha requerido muchas horas de trabajo interno por parte del equipo redactor, por parte de los Concejales, ha habido muchas reuniones externas para quién ha tenido interés con convocatorias específicas en Lobiano como en los barrios. Ha habido reuniones del Consejo de Urbanismo, ha habido formación para que los concejales que tuviesen lógicamente un desconocimiento en una materia difícil como esta pudieran tenerlo, además de Boletín Oficial, encuestas, diferentes publicaciones, etc., ha sido a mi entender un documento en el que quien ha tenido interés en participar ha tenido ocasión y en el que la voluntad de compartir porque este no es un proyecto de ciudad ni de un grupo político ni de un equipillo; este es el Ermua que vamos a construir entre todos y que por lo tanto creo que se ha hecho con una visión de que las personas que viven en Ermua quién tuviera algo que decir lo pudiera hacer y quién tuviera que discutir lo pudiera hacer.

*Azalpen tekniko bat egin behar dut: batzordeetan ikusi genuenez, Plan Orokorra aurkezten dugu, hori onartzeko, baina Mallamendi eta Betiondo eremua kanpoan utzi dugu. Dakizuenez, beharrezkoa da horretan zuhur jokatzea, aurreko zatiko plana geldituta baitago. Euskadiko Auzitegi Nagusiak ontzat hartu du jabe batzuen erreklamazio bat, eta beraz, Plan Orokorra onartu beharko genuke orain, Betiondoko Zatiko Plana izan ezik.*

Hacer una aclaración de tipo técnico, en el sentido de que como vimos en las comisiones, lo que procederíamos a presentar es la aprobación del Plan General excepto la zona de Mallamendi, Betiondo, que como sabéis tenemos una necesaria lógica de prudencia dado que teníamos una paralización del Plan Parcial anterior. El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco le ha dado la razón a una reclamación de parte de los propietarios y por lo tanto lo que se aprobaría sería el Plan General con todas las consideraciones excepto la zona del Plan Parcial de Betiondo.

*Gisasola jaunak hau esan du: EAJk planaren aldeko botoa emango du, ez proposatzen diren gauza guztiekin ados*

El Sr. Gisasola manifiesta que, EAJ/PNV vamos a votar a favor de este Plan no porque estemos de acuerdo con todo lo

*gaudelako. Erredakzio-taldeari esan genion, eta batzordeetan esan dugu. Ez gaude ados gauza askorekin. Ez gaude ados autobideko ordainlekuan egin nahi denarekin edo Planaren arabera egingo denarekin. Orobat, ez gaude ados Abelleira txatartegian eta hurbileko lekuetan (Okin-Zuri) aurreikusita dagoenarekin. Hala ere, uste dugu okerragoa izango litzatekeela Ermuak plan bat izatearen kontra bozkatzea, eta hortaz, alde bozkatuko dugu.*

*Saenz de Zaitegi jaunak hau esan du: Guk kontrako botoa emango dugu.*

*EAJk esaten duenaren kontra, guk uste dugu Ermuak behar duen planak hemen bizi garen pertsonon bizi-kalitatea hobetzeko helburua izan behar duela.*

*Guk hiru oinarritan jarriko dugu arreta: etxebizitzan, ingurumenean edo aisia-guneetan, eta industria-lurzoruan.*

*Gure ustez, plana garatzen eman diren urteetan, arlo horiek ez dira zehatzago edo iraunkortasun handiagoz jasotzen.*

*Lehenengo eta behin, etxebizitzen baremazioari dagokionez, Planaren hasierako onarpena kontuan hartuta, 900 etxebizitza inguru izango lirateke. Gure iritziz, etxebizitza horiek proposatu aurretik, atzera begiratu beharra dago, aurreko plan orokorretik zer egin den eta egin gabe zer geratu den ikusteko. Eta herri honetarako behar diren etxebizitzen kopurua zehazterakoan, ikusten dugu aurreko plan orokorraren %73 gauzatu dugula; hau da, gauzatutzat ematen ditugun zenbait jarduketa egin gabe daude, hala nola, Aldapa Iparra, Betiondo eta Lomi-Power.*

que se plantea, se lo dijimos al equipo redactor lo hemos dicho en las comisiones hay muchas cosas que no compartimos no estamos de acuerdo con la visión de lo que se pretende o lo que está puesto en el Plan que se va a hacer en el peaje de la autopista, tampoco estamos de acuerdo con lo previsto en la actual chatarrería de Abelleira y zonas cercanas (Okin-Zuri) pero creemos que sería peor que votáramos en contra de que Ermua pueda disponer de un Plan con lo cual vamos a votar a favor.

El Sr. Sáenz de Zaitegi manifiesta que, vamos a votar en contra.

A contrario de lo que dice el PNV nosotros creemos que Ermua necesita un Plan más enfocado a mejorar la calidad de la vida de las personas que vivimos aquí.

Nosotros básicamente nos vamos a centrar en tres pilares que son para nosotros lo que la vivienda, lo que es para nosotros el medio ambiente o las zonas de esparcimiento y también lo que se refiere al suelo industrial.

Creemos que en los años que se lleva desarrollando el Plan creemos que no se contempla de una manera más ajustada y más sostenible.

En un principio si hablamos a lo que se refiere a lo que es la baremación de viviendas en lo que fue la aprobación inicial del Plan estábamos hablando de alrededor de 900 viviendas. Cuando se plantean esas viviendas creemos que la foto que hay que hacer es una foto hacia atrás y ver del Plan General anterior qué es lo que tenemos no ejecutado y que no tenemos ejecutado y a la hora de valorar las viviendas necesarias para este pueblo vemos que tenemos en el Plan General ejecutado al 73%, es decir, tenemos actuaciones que se dan por ejecutadas pero que realmente no han sido llevadas a cabo

*Gure ustez, argazki osoa egin behar dugu. Eta Planak otsailetik urtarrilera bitartean (dokumentazioa urtarrilean jaso genuen) izandako bilakaera aztertuta, ikusten dugu Plan Orokorrak 748 etxebizitza jasotzen zituela, eta gero, kopuru hori aldatu egin zen, eta 767 etxebizitza ziren. Guk, plan orokor honen aurreko lanean, 22 aldaketa proposatu genituen. Haietako batzuk kontuan hartu dira, eta beste batzuk, berriz, ez. Guk minimora jotzearen alde egin dugu beti, Lurralde Planak ezartzen zuenera.*

como puede ser Aldapa Norte, como puede ser Betiondo y como puede ser Lomi-Power que creemos que al final la foto la tenemos que hacer completa y cuando después de toda la evolución del Plan desde febrero hasta la documentación que nos ha sido remitida en enero y al final se recoge un Plan General dedicado a 748 viviendas y después modificado a 767 viviendas. Nosotros desde las alegaciones que hicimos en el trabajo que hicimos previo a este Plan General donde planteamos 22 modificaciones de las que algunas han sido consideradas y otras no, nuestra apuesta siempre ha sido ir a lo mínimo, lo que la horquilla del Plan Territorial definía.

*Guk 900 etxebizitzaren kopuru horretara mugatzearen alde egin dugu beti, minimora jotzearen alde, eta ez genuen nahi eraikitzea helburu duen plan orokor baten ereduaren alde egin. Esparruak berreskura daitezke, edo zauriak sendatu, baina, gure ustez, plan orokor honi ezezko botoa emateko oinarrietako bat harrobiaren berreskurapena da. Harrobian aisiarako leku bat jarri behar dela uste dugu, etxebizitzak egin beharrean.*

Nuestra apuesta siempre ha sido tirar a esa horquilla de 900 viviendas, ir a lo mínimo y realmente no apostar por un modelo de Plan General que al final está basado en construir sí puede ser recuperación de zonas o curar heridas pero para nosotros una de los pilares para votar que no a este Plan General sería la recuperación de lo que es la Cantera. Utilizar y enfocar la cantera hacia una zona de esparcimiento en vez de una zona de viviendas.

*Herrian berdeguneak modu errealago batean bilatu behar dira. Herrian uste da aisiarako berdegune gutxi ditugula, eta uste dugu Plan Orokorrak horrelakoak jaso beharko lituzkeela.*

La manera de sumar y de buscar zonas verdes en el pueblo tiene que ser de una manera mucho más real. La sensibilidad que existe en el pueblo es que no tenemos zonas verdes suficientes para esparcimiento y creemos que en el Plan General lo tendríamos que recoger.

*Etxebizitzaren gaiari berriro helduz, ehuneko hauek proposatzen dira Plan Orokorrean: %50 etxebizitza libreak, %25 babes ofizialeko etxebizitzak, eta %20 zuzkidura- edo alokairu etxebizitzak. Argi dago ehuneko horiek eskariaren araberakoak izan beharko luketela. Halaber, Eusko Jaurlaritzatik etorritako*

Volviendo al tema de la vivienda, esa horquilla que nos plantean y viendo los porcentajes respecto a la misma, es decir, vivienda libres alrededor del 50%, 25% vivienda de protección y un 20% vivienda dotacionales o de alquiler, esos porcentajes está claro que tienen que ser en función de la demanda. Tenemos también toda la

*dokumentazioa dugu. Izan ere, herri-eredu batez ari gara, eta Ermua 17.000 biztanle izatetik 16.000 biztanle izatera igaro da. Eta herri-ereduak beste 1.400 etxebizitza berri behar dituela kalkulatzen du, baina, azkenean, 700 izango dira. Gure ustez, eraiki behar diren etxebizitzen kopuruari dagokionez, kalkuluak edo herri-ereduak minimora jo beharko luke. Etxebideren datuen arabera, 482 pertsona eskatzen ari dira etxebizitza Ermuan. Gure ustez, etxebizitza Ermuan bilatzen ari den jendeaz hitz egitean, dagoeneko etxebizitza duen jendeaz eta kanpotik Ermura erakarri nahi den jendeaz ere hitz egiten da. Hala ere, Ermura jendea erakartzeko, herriko bizi-kalitatea edo guretzat nahi duguna hobetu behar da.*

documentación que viene del Gobierno Vasco pues cuando estamos hablando de un modelo de pueblo, un Ermua de 17.000 habitantes hemos pasado a 16.000 se está haciendo una estimación de un modelo de pueblo que podría recurrir a 1.400 viviendas nuevas más pero que al final se convierten en 700, nosotros creemos que la estimación o modelo de pueblo con respecto a la vivienda que se debiera de construir tendría que ir ajustado a la mínima. Tenemos datos de Etxebide alrededor de 482 que son las que están pidiendo vivienda en Ermua; creemos también que cuando se habla de ciudadanía que está buscando vivienda en Ermua, también se habla de una intención de gente que ya está vivienda, como que se estima que gente de fuera pueda venir a Ermua a vivir cuando para atraer gente a Ermua tendríamos que aumentar la calidad de vida de este pueblo o lo que queremos para nosotros.

*Berdegune edo aisia-guneez berba egiten badugu, guk ikusten dugu Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako txostenean biztanleko 5 m2 inguruko dentsitatea jasotzen dela. Plan Orokorrean, berriz, biztanleko 17,97 m2-ko dentsitatea dago jasota; hau da, onartzen ari garen Plan Orokorrean, eskatzen zaiguna baino hiru aldiz berdegune edo aisia-gune gehiago agertzen da. Nire ustez, irisgarriak diren berdeguneak falta zaizkigu. Berdegune horiei dagokienez, Lurzoruaren Legeak eta Foru Aldundiak esaten dute berdegune horiek irisgarriak izan eta hirigunetik hurbil egon behar dutela, gune horiek berdegunetzat hartzeko irisgarriak izan behar dutela. Legea apur bat orokorra da, eta ez du zehatz-mehatz adierazten berdegune bat zer den, baina, adibidez, Mantxibar edo Untzama berdegunetzat hartzen dira Plan Orokorrean. 106.000 m2-ko berdegune bat izango litzateke*

Si hablamos de zonas verdes o zonas de esparcimiento, nosotros vemos que en el informe que se presenta se estima desde el Gobierno Vasco una densidad por persona de alrededor de 5 m2/habitante, en el Plan General lo que se recoge es 17,97 m2., es decir en el Plan General que estamos aprobando lo que se estima de cara al pueblo es de tres veces más de zonas verdes de esparcimiento que lo realmente se nos requiere. La sensibilidad que podemos tener en el pueblo yo creo que nos faltan zonas verdes accesibles y cuando estamos hablando de estas zonas verdes y cuando la Ley de Suelo y la Diputación está diciendo que las zonas verdes tienen que ser zonas accesibles cercanas al núcleo urbano y que tienen que tener una accesibilidad para considerarlas como zonas verdes y a pesar de que sea un poco genérico y no sea la ley tan exacta a la hora de definir qué es una zona verde, por ejemplo, se contempla como

*herriarentzat, baina, egia esan, ez da irisgarria ez adinekoentzat ez haurrentzat; alegia, azalera hori guztia herritik hurbil ez dagoen gune bati dagokio, eta bestalde, ez da Ermuko edozein biztanlek erabil dezakeen aisia-gune bat.*

*Ongaraiko guneak 96.000 m2-ko azalera du, eta hori ere aisia-gunetzat hartzen da. Hala ere, ez da oso gune irisgarria, eta ez dago hirigunetik hurbil. Edonor joan daiteke haraino, bai, baina ez da oso irisgarria gure adinekoentzat.*

*Nire iritziz, saihesbideak Plan Orokorrean duen eragina oso handia da; gero, denborei buruz hitz egin dezakegu. Saihesbideak zeharo baldintzatutako plan orokor bat ari gara onartzen. Saihesbideari dagokionez, uste da 2019. urterako Okin Zuriko gunea amaituta egongo dela, eta orduan konpon genitzake gune horretako arazoak.*

*Hirigune historikoari dagokionez, Okin Zuriko etxebizitzak egin ondoren, elizaren gunea egin genezake, bai eta, besteak beste, berdegunea urbanizatu ere. Egia esan, dena erlazionatuta dago.*

*Kostu ekonomikoaz ere hitz egin daiteke. Plan Orokor hau gauzatzeko, ehun milioi inguru behar omen dira, eta hori berreskuratu egin daiteke, baldin eta Plan Orokorreko epeak burutzen badira, eta betiere, zorpetzen ez bagara-*

*Aisiari berriz helduz, metro karratuak eta saihesbideari dagokiona kentzen baditugu, 36.000 m2 kenduko ditugu, Okin*

zona verde lo que sería Mantxibar o Untzama donde se recogen alrededor de 106.000m2. sería una zona verde destinada para el pueblo que realmente no tiene accesibilidad para los mayores para los niños, es decir, se están contemplado todos estos metros cuadrados para acceder a una zona no cercana al pueblo y tampoco es una zona de esparcimiento que podría ser recurrente por cualquiera de los habitantes de Ermua.

En la zona de Ongarai 96.000 m2. también se contempla como zona de esparcimiento y tampoco es una zona realmente accesible y cercana. Sí se puede ir pero es una zona que para nuestros mayores no es muy accesible.

Toda la afectación que tiene la variante sobre este Plan General yo creo que es relevante, luego podemos hablar de tiempos. Estamos aprobando un Plan General que está condicionado totalmente por lo que es la variante. La variante se estima para el año 2019 esté finalizada la zona de Okin Zuri y es entonces cuando podríamos dar soluciones a esa zona.

Hablando del Casco Histórico, después de ejecutar las viviendas en Okin Zuri nos podría llevar a ejecutar la zona de la iglesia, lo que es la urbanización de la zona verde, etc. realmente todo está interrelacionado.

Se puede hablar del coste económico. Estamos hablando de unos cien millones el llevar a ejecución este Plan General que sería recuperable siempre que se vayan ejecutando los distintos plazos de este Plan General y donde no nos lleve a un endeudamiento.

Volviendo al tema del esparcimiento si seguimos quitando metros cuadrados y si quitamos lo que afectaría a la variante

*Zuriko pasealekuetatik eta Vialve gunetik. Halaber, Garbigunearen ondoan, bi gune horiek beste 3.500 m2-ko azalera dute. Aisia-gunetzat hartzen dira, eta hori logikoa da nolabait, baina ez dira Ermuko biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duten aisia-guneak. Gure ustez, Ermuko biztanleen bizi-kalitatea benetan hobetzeko, harrobiaren gunean egin beharko litzateke aisia-gune bat. Gure ustez, herri-ereduak bide horretatik joan beharko luke.*

estamos quitando 36.000 m2. de lo que serían los paseos desde Ermua desde la zona de Okin Zuri y toda la zona de Vialve que sería afectada. También la zona del Garbi-gune, esas dos mesas o ese espacio son otros 3.500 m2. que se contemplan como zona de esparcimiento, que tiene su ser, pero no son zonas de esparcimiento que aumenten la calidad de vida de los habitantes de Ermua. Nosotros creemos que la calidad de vida de los habitantes de Ermua realmente se vería realmente incrementada si la zona de esparcimiento o lo que nosotros creemos que la zona de la cantera debería ser enfocada para el esparcimiento. Nosotros creemos que el modelo de pueblo tiene que ir por ahí.

*Kontuz ibili behar dugu industria-lurzoruaz mintzatzean. Ermuko industria-lurzorua agortuta dagoela ikusten dugu, eta hasiera batean, 4 hektareakoa zela kalkulatzen zen.*

Tenemos que tener cuidado a la hora de hablar de suelo industrial. Si vemos que el suelo industrial de Ermua está agotado y que en un principio se estimaban en 4 hectáreas.

*Lehen industria zegoen eta lur-jausiak gertatzeko arriskua duten lekuetan, etxebizitzak egin ditugu; hala nola, Bizkaia etorbidean, Sakonan eta Aldapan. 18.000 biztanle izan ditzakeen herri bat ari gara bilatzen, baina, gure iritziz, hori ez dator bat errealitatearekin, gure biztanle-kopuruaren bilakaera ikusita.*

Hemos metido casas en zonas donde estaban instaladas industrias y con riegos de desprendimientos, zona de Avda. Bizkaia, Sakona, Aldapa. Estamos buscando un pueblo que podría llegar a los 18.000 habitantes cuando creemos que no es real viendo la evolución de habitantes que tenemos.

*Askoz gehiago optimiza daiteke gure industria-lurzorua. Bere garaian, Monroe Areition kokatu zenean, ohiz kanpokoa zela esan zen, helburua eraginik ez izatea zela. Beste industria-pabilioi batzuk sartuko ditugu, beste 12 hektarea, baina, egia esan, ez dakit industria-lurzoru gehiago izateak lagunduko ote digun etorkizunari aurre egiteko gaitasun handiagoa izaten. Baina jakin badakigu Ermuko jendeak eta guk bizi-kalitate handiagoa nahi dugula, eta Plan Orokorrak gaia ikuspuntu horretatik aintzat*

Se podría optimizar muchísimo más el suelo industrial que tenemos. En su momento cuando Monroe se puso en Areitio se habló de un hecho excepcional de intentar no impactar. Vamos a meter otros pabellones industriales otras 12 hectáreas que se estiman, realmente no sé si disponer de suelo industrial nos va ayudar a tener un pueblo más capaz para afrontar el futuro. Lo que sí sabemos es que la gente de Ermua o nosotras y notros queremos una mayor calidad de vida y el Plan General nos tendría

*hartzen lagundu beharko liguke.*

*Pizgarriei eta herriko jendearen partaidetzari dagokienez, 8-16 urtean eragingo digun zerbait onartzeko, beharbada, herriaren partaidetza sustatzeko modu gehiago bilatu beharko ziren, Ermuko herritarren ekarpenak jasotze aldera. Nola neur daitezke ekarpenak? Agian, Plan Orokorrak jaso dituen alegazioen bidez neur daitezke. Alegazio gehienak Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Bilduk, EAJk eta Ermuko biztanleek egin dituzte. Agian, ez dugu asmatu herritarrak ekarpenak egitera bultzatzeko moduekin, haien partaidetza sustatzeko moduekin, herri hau nola eraiki dezakegun jakiteko.*

*Azkenean, otsailaren 9an, Euskadiko Auzitegi Nagusiaren epai bat jaso genuen. Batez ere, Betiondoko sektorea antolamendutik kanpo geratzen zela adierazten zigun epai horrek; alegia, azkenean, sektore horretan aurreikusita zeuden 150 etxebizitzak ez dira egingo. Lursail horien jabeak Ermuko herritarrak dira. Baina, bestalde, denboraren joanean, Betiondoko egitura hori, 2006ko Lurzoruaren Lege berriaren arabera zehaztu zena, zalantzatan dago. Zalantzatan jar daiteke hori guztia nola egin zen. Orain, Lurzoruaren Legeak herriaren erdialdera ekartzen du dentsitatea, eta horren ondorioz, metro edo hektarea horiek ezin dira erabilera partikularretarako erabili. Konponbide bat bilatu beharko da, eta Ermuko hurrengo gobernuak arduratu beharko du horretaz, arazoa konpontzeko. Betiondo berreskuratzeko ekintza-planik ote dagoen aztertu beharko litzateke. Konponbide bat bilatu beharko litzateke gune hartarako. Egoera hau konpontzeko plan bat behar dugu. Hori ere kontuan izan behar dugu gaur*

que ayudar a enfocarlo desde ese punto de vista.

Con respecto al tema de incentivación y participación de la gente del pueblo para aprobar algo tan importante que nos va a afectar en ocho-dieciséis años quizás se tendrían que haber buscado muchas más formas de incentivar al pueblo para recibir aportaciones. Las aportaciones en qué se pueden medir? quizás se puedan medir en las alegaciones que ha habido a este Plan. Las alegaciones básicamente han venido de la Diputación, Gobierno Vasco de Bildu, una del PNV y vecinos y vecinas de Ermua quizás no hemos sabido incentivarles para que aporten y para que veamos cómo se puede construir este pueblo e intentar provocar esa participación.

Al final resulta que el día 9 de febrero se recibe sentencia del Tribunal de Justicia del País Vasco encima de todo sen os advierte de que todo lo que es el sector de Betiondo queda fuera de ordenación, es decir, las 150 viviendas que se tenían previstas no sean reales al final. Los propietarios de esas parcelas por un lado son vecinos y vecinas de Ermua, particulares, y luego también resulta que con el paso de los años todo ese entramado de Betiondo que se definió en su momento con la nueva Ley del Suelo del 2006 quedaría muy en entredicho de cómo se definió y cómo se densificó aquello. La Ley del Suelo lo que hace ahora es provocar o traer la densidad al centro del pueblo y no dejar esa cantidad de metros o de hectáreas para usos particulares. Habrá que buscar una solución y el próximo gobierno de Ermua tendrá que enfrentar eso de alguna manera buscar cómo solucionar a ese problema. Sería de recibo intentar ver si realmente existe algún Plan de acción para recuperar Betiondo, etc. Hay que buscar una solución a esta zona. Tenemos que tener un

*bozkatzerakoan.*

plan para solucionar esta situación. Esta cuestión también afecta a la votación de hoy.

*Horrek ez du eraginik gure ezezkoan, baina, hala ere, iazko otsailean egin genituen ekarpenak berresten ditu. Orduan, Lurraldearen Zatiko Planak adierazten zuen kopuru minimora –hau da, 500 etxebizitzaren kopurura– jo behar genuela esaten ari ginen, eta gure ustez, epai hori kontuan hartu eta Plan Orokorra gehiago doitu beharko genuke.*

Nuestra votación del no, no viene afectada por ello pero sí que nos ratifica en nuestras primeras aportaciones en las fechas de febrero del año pasado donde estábamos hablando de que teníamos que ir a la horquilla mínima de lo que el Plan Territorial Parcial decía que eran 500 viviendas, y nosotros creemos que esta sentencia puede tener que ajustar más este Plan General.

*Funtsean, hiru zutabe horiek. Nire iritziz, herritarrekiko interakzioa ez da nahikoa izan, eta haien ekarpenak ez dira aintzat hartu hain garrantzitsua den eta hainbeste eragiten digun gauza batean. Askoz ahalegin handiagoa egin beharko genuen, Ermuko herritarrak ekarpenak egitera bultzatzeko, Ermuarentzat benetan zer herri-eredu nahi duen esatera bultzatzeko. Hori dela eta, gure botoa kontrakoa izango da.*

Básicamente esos tres pilares. La interacción con el pueblo creo que no ha sido suficiente y esas aportaciones no son reflejadas en algo tan importante y que tanto nos afecta y que deberíamos de haber realizado mucho más esfuerzo en el sentido de provocar a la ciudadanía de Ermua para que aportara y nos dijera claramente cuál es el modelo de pueblo que realmente queremos para Ermua por ello nuestro voto va a ser que no.

*Totorika jaunak hau esan du: Arinkeria handiz eta ausardia handiz mintzatzen zara zu egon ez zaren bileretan hitz egin diren gauzei buruz. Ni, zure egoeran, oso deseroso egongo nintzateke. Ez dakit nola hitz egin dezakezun egin behar diren gauzei buruz, bileretan parte hartu ez baduzu. Bilera horietan, gauzak egiten ditugu, erabakiak hartzen ditugu, jabeen interesak eta ermuarren interesak babestu ditugu, eta egin behar dena egin dugu. Baina, bilera horietan izan ez zarenez, ez zara enteratu.*

El Sr. Totorika manifiesta que, cuando hablas con la ligereza que hablas y con la bravura que hablas de cosas sobre reuniones en las que no has estado yo me encontraría incomodísimo estar en tu posición, no sé cómo puedes hablar de cosas que hay que hacer si no has estado en las reuniones en las que se está haciendo y tomando decisiones defendiendo los intereses de los propietarios y defendiendo los intereses de los vecinos de Ermua y haciendo lo que toca y eso se está haciendo y como no has estado en las reuniones no te has enterado.

*Bilera horretan, Lurraldearen Zatiko Planaren arazoak jorratu genituen. Gure ustez, arrazoi sendoak daude epai horren aurka errekurtsoa jartzeko. Gure ustez, akats handiak daude epai horretan, metodologia-arrazoiak direla medio ez baitu edukian*

En esa reunión se habló de la problemáticas que tiene el Plan Parcial del por qué de una sentencia en la que entendemos que hay razones fundadas para recurramos porque creemos que existen errores graves muy importantes porque no se

*sakontzen. Eta edukian sakondu behar da, jabeek irabazien %20 izan behar duten ala ez aztertu behar da. Gu ez gaude ados jabeekin. Ni ez nago ados jabeek sustatzaileen irabazien %20 lortzearekin. Beste garai batzuetan, ez nengoen ados, eta orain, are gutxiago. Eta epaileak hori horrela irakurri behar dela eta irizpide hori erabili behar dugula esaten duenez, eztabaidatu egin behar dugu, nire ustez; izan ere, gainera, arrazoia ematen diguten legeak daude.*

*Udal hau ermuarren interesak eta jabeen interesak ari da defendatzen. Eta zu bileretara etorriko bazina, jakin egingo zenuke. Zer urrats egingo diren azaldu dugu: lehenik, zuhurtziagatik, ez dugu Plan Orokorrean sartuko, nahiz eta sartzea pentsa genezakeen; bigarrenik, kasazio-errekurtso bat jarriko dugu; hirugarrenik, kasazio-errekurtsoa jartzeko arrazoiak azaldu ditugu; eta laugarrenik, jabeek lizentziak izaten jarraituko dute, eta ez zaie ezer gertatuko, lizentziak izateko eskubidea baitute, bai legezkotasunaren ikuspuntutik, bai logikaren ikuspuntutik. Ez diegu kalte egingo, ez interes orokorrei, ez jabeen interesei. Horretaz hitz egiten dugu, eta zuk ausardia handiz esan dituzu hemen gauzak, baina esan duzuna ez dator bat errealitatearekin.*

*Udal hau, ez gobernu-talde hau, Udal hau –gobernu-taldea eta beste zinegotzi batzuk– erabakian hartzen ari da, eta arazoak aintzat hartzen ari da, eta honek adierazten du gaia lantzen ari garela. Ez da eztabaidatu ez dugun ezer gertatu. Ez da geldiarazi gaituen ezer gertatu. Erabakiak ari gara hartzen, Legearen arabera eta herritarren interesen arabera.*

ha entrado por razones de metodología a profundizar el contenido que tenía que haber profundizado que se tenía que haber valorado que si tiene que haber un 20% de beneficios por parte de los propietarios. Nosotros no estamos de acuerdo con los propietarios. Yo no estoy de acuerdo con que los propietarios se lleven un 20% del beneficio que los promotores. En otro tiempo tampoco estaba de acuerdo hoy mucho menos. Y como eso dice el Juez que hay que leerlo así y que tenemos que utilizar ese criterio creo que es procedente discutirlo porque además hay leyes que nos dan la razón.

Este Ayuntamiento está defendiendo los intereses de los vecinos, los intereses de los propietarios y se está actuando ya y está actuando y si tu vinieras a las reuniones te enterarías porque se ha explicado los pasos que se van a dar; uno el que se está dando aquí que por razones de prudencia no se incluye dentro del Plan General que podríamos haberlo planteado, dos que se va a plantear un recurso de casación, tres las razones por las que planteamos, cuatro que los propietarios pueden seguir licencias y no les va a pasar nada porque tienen derecho a ellas, a nuestro entender, tanto desde el punto de vista de la legalidad como de la lógica. No vamos a perjudicar ni los intereses generales ni los de los propietarios. De todo eso se habla y tú dices aquí unas cosas con mucha bravura pero que no se corresponden con la realidad.

Este Ayuntamiento, no sólo el equipo de gobierno, este Ayuntamiento en el que hay equipo de gobierno y otros conejales están tomando decisiones y está participando de cuáles son los problemas y esto es un reflejo de que estamos trabajando el tema. No han sucedido cosas de las que no hemos tenido ocasión de hablar. No han sucedido cosas que nos hayan paralizado. Se están tomando

*Nire ustez, hirigintza-espekulazioa bizi behar izan dugun errealitate zati bat izan da, eta ni ez nago horrekin ados. Nire iritziz, jabeen interesek muga bat dute, eta muga hori interes orokorrak dira. Eta han, ezin dugu beste garai bateko eredua egin, ez dugu horrelakorik egin behar; adibidez, 1960ko hamarkadako hazkunde handien eredua. Hazkunde-apur bat gehiago adostu dezakegu, zentzuzkoa bada, baina ezin dugu aurreko eredua garatu. Hortaz, partikularren interesen muga interes orokorra da; hau da, kudeaketa-ereduak ermuar guztientzat interesgarria izan behar du, eta hemen gauden gehienok ordezkatzen ditugu ermuarrak. Horri guztiari buruz hitz egiten dugu, eta hitz egiten eta erabakiak hartzen jarraituko dugu, gobernu-taldeak zein Udalak.*

*Partaidetzari dagokionez. Gauza berbera gertatzen da, nolabait. Zuek etorri eta parte hartu ez izanak ez du esan nahi parte hartu ez denik. Alegazio asko landu eta eztabaidatu dira, eta gaur haietako bat entzungo dugu. Alegazioak onar daitezke ala ez, haiekin ados egon gaitezke ala ez, baina esan duzuna ez da egia Komunikazio-modu asko egon dira. Gainera, adostu egin genituen, eta Plan Orokorrean, ez dago egingo dela esan den partaidetza-formularik. Zenbait formula erabili ditugu. Erredakzio-taldea egon da, jendaurrean egon da, eta dokumentu bat egin zen jendeak oinarrizko elementuen berri izan zitzan. Bi urte behar izan ditugu. Izan ere, Plan Orokorra osoko bilkura askotan landu dugu, eta kolektiboek, partikularrek, jabeek eta sustatzaileek aukera izan dute zer egiten ari ginen jakiteko, eztabaidatzeko eta kontra daudela adierazteko, besteak beste.*

decisiones acordes con la Ley y acordes con los intereses de la ciudadanía.

A mí me parece que la especulación urbanística es una parte de la realidad que hemos tenido que vivir y que no comparto y creo que los intereses de los propietarios tienen un límite y el límite son los intereses generales y allí no podemos y no debemos de hacer otro modelo similar al que tuvimos en los años 60 en Ermua de grandes crecimientos, podemos pactar algo más de crecimiento sí es razonable pero no podemos hacer el modelo anterior y por lo tanto el tope de los intereses de los particulares es que el modelo de gestión interese a los vecinos, por cierto, representados por la mayoría de los que aquí estamos. De todo eso se está hablando y se seguirá hablando y se está decidiendo, tanto Gobierno como el Ayuntamiento.

Respecto al tema de la participación. Es un poco lo mismo. Que no hayáis venido vosotros y que no hayáis participado no quiere decir que no se haya participado. Se han muchas regiones y hay bastantes alegaciones y una de las cuales hoy tendremos ocasión de oír que se han trabajado y que se han discutido y se pueden aceptar, compartir o no pero no es verdad. Ha habido múltiples formas de comunicación, por cierto se pactaron y no hay ni una sola fórmula en materia de participación en el Plan General que se haya dicho que se va a hacer. Hemos tenido diferentes fórmulas. Ha estado el equipo redactor, ha estado expuesto por la calle, se ha hecho un documento para que la gente conociera los elementos claves, se ha tardado dos años; es que del Plan General se ha hablado en muchos Plenos y ha habido ocasión que colectivos y personas individuales, propietarios, promotores, todos ellos han tenido varios momentos para

conocer, debatir, oponerse…

*Industria-lurzoruari dagokionez, proposatzen dugun industria-lurzoru berria herritarrentzat baliagarria izango den ala ez ez badakizue, arazo bat daukazue. Zorionez, udalbatza honetako kide gehienek ez dute zalantzarik. Batzuok uste dugu enpleguaz kezkatzea eta industria-lurzorua eskaintzea erabakigarria izango dela gure etorkizunerako. Guk oso argi daukagu, eta zu zeu zara adibidea, Iker; izan ere, Monroe enpresak Ermuan jarraitzen du Ermuko Udalak funtsezko erabaki bat hartu zuelako. Ermuko Udalak aurrea hartu zuen Monroe hemen gera zedin, eta ez Abadiñon, Turkian, Gasteizen edo inon ere; batek daki, Polonian egon zitekeen honezkero. Lehen esan duzu ez dakizuela lurzoruaren eskaintzak balioko duen ala ez. Nola ez dakizuela balioko duen ala ez? Ezinbestekoa da. Batzuok uste dugu ezinbestekoa dela; izan ere, enplegua ez da magiaz sortzen, enplegua ez da norbaitek esaten duelako sortzen… Enplegua sortzeko, baldintza teknologiko, ekonomiko eta finantzario egokiak behar dira, eta jakina, industria-lurzorua behar da. Industria-lurzorua ezinbestekoa da; bestela, gure betebehar nagusietako bat botako dugu alde batera, enpleguaz kezkatzea, alegia.*

En materia de suelo industrial el que vosotros no sepáis si el suelo industrial nuevo que se plantea va a ser útil o no para los ciudadanos tenéis un problema y gracias la mayoría de esta Corporación no tiene esas dudas. Algunos creemos que preocuparnos por el empleo en general, oferta de suelo industrial es decisivo para nuestro futuro. Nosotros tenemos clarísimo, y el ejemplo eres tú Iker porque la Monroe sigue en Ermua porque el Ayuntamiento de Ermua tomó una decisión clave y el Ayuntamiento de Ermua tomó la iniciativa para posibilitar que Monroe esté hoy aquí en vez de en Abadiano, Turquía, Vitoria o quizás en ningún sitio porque igual estaba en Polonia entonces eso de que las ofertas de suelo es algo literalmente decías tú “no sabemos si va a servir” cómo que no sabéis si va a servir es imprescindible, algunos creemos que es imprescindible porque el empleo no es por magia divina, no sucede porque alguien dice…el empleo sucede si hay condiciones tecnológicas, económicas, financieras y por supuesto de suelo industrial, el suelo industrial es imprescindible y sino estaremos renunciado a una de nuestras principales obligaciones que es preocuparnos por el empleo, imprescindible.

*Bizi-kalitateari eta harrobiari dagokienez. Ni guztiz ados nago: bizi-kalitatea parke publiko gehiagorekin hobetzen da. Baina zuek harrobian parke publiko bat egin behar dela esaten duzue, eta ez duzue besterik esaten, hori Errege Magoentzako gutuna izango balitz bezala. Eta horrekin ezin naiz ados egon. Plan orokor bat ari gara onartzen, eta ez Errege Magoentzako gutun bat. Eta harrobian parke publiko bat egin behar dela esaten bada, hau ere azaldu behar da: parkea egiteko behar*

En cuando a calidad de vida y la cantera. Yo estoy totalmente de acuerdo en que la calidad de vida se mejora con más parques públicos pero lo que no puedo estar de acuerdo en que vosotros digáis que vamos a hacer un parque público en la cantera y solo digáis eso, como si esto fuera la carta a los reyes magos. Estamos aprobando un Plan General no una carta a los reyes magos y si se dice que en la cantera vamos a hacer un parque se dice como se paga los 4 o 5 millones de euros que nos puede costar la

*diren 4 edo 5 milioiak nola ordainduko diren; zer segurtasun-neurri hartuko diren harriak parke horretan egon daitezkeen ermuarren gainean eror ez daitezen; eta jakina, zer kalte-ordain emango zaion han dagoen jarduerari. Hori da plan orokor bat egitea. Ni ados nago han parke bat egitearekin. Hori konponbide bat bada, nola ordainduko den azaldu behar da. Hau erakunde bat da, eta erakundeetan, legeak aginduta onartzen dira gauzak. Horri buruz ezin da eztabaidatu. Eta ez bada argitzen nola ordainduko den, Plan Orokorra bertan behera geratuko da. Erakunde guztiek jokatu behar dute berdin, eta logikoa da gauzak horrelakoak izatea. Beraz, ez da zentzuzkoa zuek parke bat egin behar dela esatea, nola ordainduko den azaldu gabe. Ez da zentzuzkoa, eta gainera, onartezina da.*

*Asmo bat adierazi duzue, eta ni bat nator asmo horrekin. Hala ere, desberdintasun bat dago: nik ez diet gutunik idatziko Errege Magoei; izan ere, egin daitezkeen gauzak proposatuko ditut.*

*Txarto ulertu ez badizut, lanik ez dagoelako joan da Ermuko jendea herritik. Hori ez da egia.*

*Ez dugu etxebizitzarik eskaini, eta horregatik, Ermuko jendea Berrizera, Mendarora edo Zaldibarrera joanda. Ermuan bagenekian proposatzen zen etxebizitza-eskaintza ez zela nahikoa, gure herriko biztanleria-piramidea kontuan hartuta. Ez da nahikoa etxebizitza eskaini Ermuan, eta jarduera ekonomikoa badago ere, jendea ondoko herrietara joan da; hain zuzen ere, kalitatezko herri baten aldeko apustua egin zelako, eta ez kantitatearen aldekoa. Ermuan, eskaintza ez da nahikoa izan, eta beste herria horretaz baliatu dira, jakina. Eta hemen babes ofizialeko etxebizitzarik eskaintzen ez bada, ulergarria da gazteak*

construcción, la seguridad para que las piedras no lleguen hasta los vecinos o hasta los niños que pueden estar circulando por ese parque y por supuesto la indemnización de la actividad y el actor fábrica que está ahí, eso es un Plan General. Yo estoy de acuerdo en que se haga un parque si eso es una solución que se explique cómo se paga. Esto es una institución y en las instituciones se aprueba, por cierto, por obligación legal y esto no es opinable y si no se dice cómo se paga nos tumba el Plan General pero el resto de las instituciones también y es lógico que así sea y por lo tanto no es razonable dar por bueno que vosotros digáis que queremos hacer un parque sin decir cómo se paga. No es que no sea razonable sino que es inadmisible porque no lo habéis dicho.

Solo habéis manifestado una voluntad que yo comparto pero con la diferencia de que yo no voy a permitir lujo de escribir cartas a los reyes magos sino de plantear cosas que se pueden hacer.

Dices que la gente de Ermua, si no he entendido mal, que se ha ido porque no ha trabajo. Eso no es verdad.

La gente de Ermua se ha ido a Berriz a Mendaro a Zaldibar porque no hemos ofertado vivienda. En Ermua sabíamos que la oferta de vivienda que se planteaba no era suficiente para la pirámide poblaciones que teníamos, no se ha ofertado suficiente vivienda en Ermua y habiendo actividad económica se han ido al pueblo de al lado porque la apuesta que se hizo era por un pueblo de calidad porque no se hizo una apuesta por la cantidad. En Ermua ha habido una oferta insuficiente y se han aprovechado, lógicamente y entiendo que un joven diga no me ofertan vivienda VPO me voy a otro pueblo. Se nos han ido en el mayor momento

*beste herri batera joatea. Hazkunde ekonomikorik handienean joan dira, ez ekonomia gainbehera zegoenean, ez jarduera ekonomikorik ez zegoenean; ez dute enpleguagatik emigratu. Seguru asko, Ermutik beste herri batera joan direnean, beren jarduera ekonomikoari eutsi diote. Etxebizitza-eskaintza nahikoa eta egokia izan ez delako joan dira. Hori aurreko Plan Orokorrean eta honetan aztertu dugu, eta aurreko Plan Orokorrean, erabaki zen ez zela etxebizitza eskainiko eskaintze hutsagatik. Bestalde, ez dakit nondik atera duzun 18.000 biztanleen helburua. Ermuak 100 biztanle galtzen ditu urtero, eta udalbatza horretaz jabetuta dago, eta hobe da hirian kalitatea izatea kantitatea baino.*

*Saihesbideak ez du ezer eragozten. Saihesbideak bi fase ditu, eta lehen fasea egiten denean, ordainlekua egin daiteke; ez legoke kontraesanik. Ordainlekuaren gunea lehen fasean egingo da, baina ez dugu saihesbidea bukatu arte itxaron behar Okin Zurikoa egiteko; izan ere, oraintxe bertan egin genezake, hazkunde ekonomikoa egongo balitz, eskaria egongo balitz. Ermuko zirkulazio-egoera oso larria da, eta saihesbideak konponduko du, baina etxebizitzen hirigintza-garapena ez dago horregatik geldituta, ezergatik ere ez. Ez dago kontraesanik. Oraintxe bertan, proiektu ekonomiko gisa funtzionatzen egon liteke eskaria egongo balitz, berriro ere Okin Zurin jarduera ekonomikorik egongo balitz. Berriro diot: saihesbideak ez du eragiten. Beste leku batzuetan du eragina; berbarako, Gipuzkoa etorbidearen eraldaketan, eta asko. Hala ere, ez du eraginik aipatu dituzun adibideetan; hau da, ordainlekuan eta Okin Zuriko Abilleiraren gunean.*

*Ez dugu inoiz esan Ermutik kanpoko jendea ekarri nahi genuenik. Ez dugu hori*

de crecimiento económico no se nos han ido en un momento de declive, en un momento en el que no había actividad económica y han emigrado para mantener el empleo. Han mantenido probablemente su actividad económica al saltar de residencia de Ermua a otro pueblo. La razón ha sido una insuficiente e inadecuada oferta de vivienda y eso es una apuesta que en el anterior Plan General igual que en este se analizó y en el anterior Plan General se decidió que no se iba a ofertar vivienda por ofertar vivienda y el objetivo de los 18.000 que has citado, no sé dónde lo has leído. En Ermua se están perdiendo 100 personas al año con plena conciencia de la Corporación y es una cosa que es preferible que tengamos calidad en la ciudad que cantidad.

La variante no impide hacer porque la variante tiene dos fases pero cuando se haga la primera fase perfectamente se podría hacer el peaje no habría contradicción. La zona del peaje se resuelve en la primera se pero la zona de Okin Zuri no hay que esperar a la variante se podría estar desarrollando ahora mismo si hubiera crecimiento económico, demanda. La actividad de tráfico que tenemos en Ermua gravísima la resuelve la variante pero el desarrollo urbanístico de viviendas no está parado por eso, en absoluto. No hay contradicción. Ahora mismo podría estar funcionando como proyecto económico si hubiese demanda si tuviéramos otra vez actividad económica en la zona de Okin Zuri, repito la variante no incide. Incide en otras claves, en la transformación de Avda. de Gizpuzkoa y es mucho pero no en los dos ejemplos que has citado que es la zona de peaje y la zona de Abilleira en Okin Zuri.

Nunca hemos dicho que queramos traer gente de fuera a Ermua, nunca hemos dicho

*inoiz esan, inoiz ere ez. Inoiz jendea Ermura etortzearen inguruan hitz egin badugu, talentua ekarri behar zela esan dugu, oso kualifikazio handiko jendea ekarri behar zela, aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeko, ez Ermuan bizitzera etortzeko. Plangintzaren helburua ez da gure eskariari eta kanpokoari erantzutea. Izan ere, kontraesankorra izango litzateke biekin, eta Eusko Jaurlaritzak hori ez egiteko esango liguke.*

*Nik uste dut Plana ondo dagoela. Nire ustez, enplegua, alokairuko etxebizitzen eskaintza, erdiguneko garapenak eta bizi-kalitatearen hobekuntza guztiz garrantzitsuak direla.*

*Batek Plan Orokorraren kontra bozkatzen duenean, kontra ari da bozkatzen. Ez zarete abstenitzen ari, kontra ari zarete bozkatzen. Horrenbestez, oinarrizko elementu horien kontra ari zarete bozkatzen, eta elementu horiek hauek dira: industria-lurzoruaren eskaintza, alokairuko etxebizitzei buruzko politika garrantzitsua, bizi-kalitatea eta daukagunaren eraldaketa. Niri ere gustatuko litzaidake ordainlekuaren gunean parke gehiago egitea, etxebizitzarik egin gabe.*

*Eraldaketarekin lotutako proiektuak legezkoak eta bideragarriak dira, erabilera zehatza izango dute, eta fakturak ordainduko dira. Eta eraldaketarik ez badago, hitzak sobera daude, baina, lehenago ere, eraldaketa egin da Ermuan, eta ekimen publikokoa, gainera. Argi daukat Ermuko eraldaketa publikoa partikularren diru-janik gabe egin dela eta Udalaren ekimen publikoan oinarritu dela. Horrek bi abantaila handi sortu ditu: alde batetik, beste udalerri batzuetan baino askoz gehiago egin da, ekimen publikoari esker eraldaketa-prozesua bizkorragoa izan delako; eta beste batetik,*

eso, nunca. Si en algún momento hemos hablado en claves de que venga gente a Ermua hemos hablado de traer talento y de estar abiertos a que venga gente muy cualificada que nos ayude a generar riqueza y empleo pero no para que sean residentes de Ermua. No es un objetivo del planeamiento atender nuestra demanda y la de fuera, por cierto sería contradictorio con las dos y el Gobierno Vasco si eso fuese así nos estaría diciendo que no hiciéramos eso.

Yo creo que el Plan está bien. Yo creo que tanto el empleo como la oferta de viviendas en alquiler como los desarrollos del centro y la mejora de la calidad de vida son elementos absolutamente relevantes.

Cuando uno vota en contra del Plan General, vota en contra del Plan General, no os estáis absteniendo, estáis votando en contra y ello conlleva que votáis en contra de los elementos clave y los elementos clave y estos elementos son la oferta de suelo industrial, política importante viviendas de alquiler y calidad de vida y transformación de lo que tenemos porque siendo serios a mí tampoco me importaría ampliar con más parques la zona del peaje sin hacer viviendas.

La transformación son proyectos legales, viables, con un uso determinado y pagando las facturas y si no hay transformación lo que hay son palabras pero si hay transformación de Ermua como se ha hecho y por cierto se ha hecho desde la iniciativa pública. Lo que sí tengo claro que la transformación pública en Ermua no se ha hecho desde el pelotazo de los particulares sino desde la iniciativa del Ayuntamiento y ello ha generado dos grandes ventajas, una que se ha hecho mucho más que en otros municipios porque la palanca pública ha permitido acelerar el proceso de

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

*kutxa bete dugu, eta hori dela eta, Udalaren finantza-egoera ona da. Hirigintzaren kudeaketa ez dute lauk egin; izan ere, Udalak zuzenean hartu izan du parte, eta gure finantza-egoera hobea da beste batzuena baino.*

*Uste dut hori guztia azaldu behar nizula, zeren eta, ez badizut erantzuten, erantzunik ez dagoela baitirudi, eta egia esan, ez nago ados esan dituzun gauza batzuekin.*

*Gisasola jaunak hitza hartu eta hau esan du: Ni bilera guztietara etorri naiz, eta batzordeetara, eta Hirigintza Kontseilura. Eta egun batean, Beatriz Yarzak errekurtso bat aurkeztu zuela jakinarazi ziguten, eta errekurtso hori dela eta, beharrezkoa zen azterketa ekonomiko bat egitea. Azterketa hori falta zen, eta Udalbatzak Betiondoko sektoreari buruzko zenbait gauza landu behar zituen berriro. Eta tramite bat baino ez zela esan ziguten. Handik gutxira, esan ziguten epai batek arrazoia ematen ziela zenbait jaberi; alegia, Udalak ordaindu behar zituela Monte Hermosoko errepideari eta ur-andelari dagozkion 1.400.000 €-ak. Egun hartan bertan, Bea Yarza eta beste bi pertsona etorri ziren; haiek dira errekurtsoa berriro jarri duten Betiondoko jabeen %5 hori. Eta orduan esan zigutenez, Euskadiko Auzitegi Nagusiak orain esan duena eskatzen ari ziren; hau da, leku hartako dentsitatea handitzea. Eta une hartan, David teknikaria eta Udalaren hirigintza-aholkularia hemen zirela, tramite bat baino ez zela esan ziguten berriro ere, eta behin azterketa ekonomiko hori aztertu ondoren denak aurrera egingo zuela. Orain, Gai hau Auzitegi Gorenera eramango omen dugu, eta ez dakigu zer gertatuko den. Betiondo plan honetatik kanpo dago, eta ondo iruditzen zait. Baina, horrez gain, esan*

transformación, y segundo, caja, porque la buena situación financiera del Ayuntamiento también tiene que ver con que la gestión del urbanismo no la han hecho cuatro sino que el Ayuntamiento ha participado directamente y tenemos una situación más solvente que otros.

Creo que son elementos que tenía que explicar porque sino te contesto Iker pues se queda como que no tiene respuesta y realmente no puedo compartir varias de las cosas muy relevantes que has dicho.

El Sr. Gisasola manifiesta que, yo que sí he venido a todas las reuniones, comisiones, al Consejo Asesor de Urbanismo tampoco puedo dejar de decir que un buen día vinimos aquí y se nos informó de que había habido un recurso presentado por Beatriz Yarza y con motivo de ese recurso era necesario porque falta un simple estudio económico volver a llevar al Pleno determinadas cuestiones relativas al Sector Betiondo y se nos dijo que era un trámite. Poco tiempo después se nos informó el día anterior también de que había una sentencia que obligaba a tal y como algunos propietarios había recurrido en su momento a que fuera el Ayuntamiento quién se encargara de costear el 1.400.000€ que correspondía a la carretera Monte Hermoso y al depósito de agua y el mismo día se plantaron Bea Yarza y otras dos personas más, que son ese 5% de los propietarios de Betiondo que han vuelto a recurrir y que en ese momento también se nos dijo que ellos pedían lo que ahora el Tribunal Superior de Justicia ha dicho que es posible que había que aumentar la densidad de esa zona y en ese momento estando aquí el Técnico David y el Asesor del Ayuntamiento en materia urbanística, me volvió a repetir que era un mero trámite y que una vez presentado ese informe económico no había ningún recorrido

*nahiko nuke oposizioko alderdioi Betiondoko sektoreari buruz esan digutena eta egon naizen batzorde guztietan esan digutena ez dela oso zuzena izan. Batzorde horietako batean, hiru pertsona horiek azaldu ziren, eta orduan esan ziguten: "hau gertatzen da".*

*Horrekin zera esan nahi dut: Betiondo plan honetatik atera da, eta argi eta garbi utzi nahi dut ez dudala uste bilera guztietara etorri garenoi gertatzen ari zenari buruzko informaziorik eman zaigunik, eta jakinaren gainean hitz egiten dudala uste dut. Oso garbi omen zegoen zer gertatuko zen, eta orain, berriz, dena auzitegien eskura dago, eta orain, auzitegiek soilik dute ahotsa. Alegia, esan zigutena ez da gertatzen ari.*

*Eta lehenengo egunean, hau galdetu nion Davidi: Eta aukeretako bat jabeek eskatzen duten %5 horretara iristea da. Hori eta beste batzuk. Argi dago ez dela gertatu esan zigutena. Ez zen hain erraza izan: azterketa ekonomiko bat egitea –eta ez dakit zenbateko ehunekoa izan behar duen– eta aurkeztea ez zen nahikoa izan. Gainera, kontua da epaileak eskatutako tramite bat betetzen ari zela, baina dena amaitu dela esan nahi du horrek? Ez, eta Auzitegi Gorenera iritsita, edozer gauza gerta daiteke; adibidez, arrazoia eman ahal die jabeei. Eta hori Plan Orokorrerako oztoporik ez bada ere, eta lizentziak ematen badira ere –eta Betiondon eraikitzeko bada, eman egiten dira–, litekeena da aurreikusita dagoena aldatu behar izatea.*

más y hoy es el día que estamos pendientes de llevar al Tribunal Supremo y no sabemos lo que va a pasar. Betiondo se saca de este Plan, me parece bien, pero también quiero aprovechar para decir que por lo menos para los partidos de la oposición la información que se nos ha ido dando en relación al sector Betiondo y lo dicho en todas las comisiones en las que he estado me ha parecido que no ha sido la más correcta. En una de las comisiones se nos presentan aquí las tres personas en las que en ese mismo día se nos dice "hay esto".

Yo lo que quiero decir con eso es que Betiondo se saca fuera de este Plan y no sé si la palabra es ¡quiero dejar constancia de que no creo que a los que hemos venido a todas las reuniones y creo que podemos hablar con conocimiento de causa! se nos ha informado de que esto estaba sucediendo y lo que se ha dado casi por seguro que iba a pasar, cuando están hablando los Tribunales que en esto son los únicos que tienen realmente voz, no está pasando lo que segura que iba a pasar.

Y el otro día le pregunto a David, ¿y una de las opciones es que haya que llegar a ese 5% que los propietarios piden? Esa y otras. Está claro que lo que no ha pasado es lo que se decide que podría pasar que era aportar un estudio económico y no entro en qué porcentaje tiene que ser; pero no era tan sencillo como que se pone encima de la mesa un estudio económico y eso que es cumplir el trámite que el Juez estaba diciendo que era necesario, termina con todo? No y llegados al Supremo puede pasar cualquier cosa, les pueden dar la razón y aunque no sea obstáculo para el Plan General y para que se siguieran dando licencias y se dan si se piden para construir en Betiondo, es posible que haya que cambiar lo que estaba previsto.

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

*Sáenz de Zaitegi jaunak hitza hartu eta hau adierazi du: Carlosek industria-lurzoruari buruz esandakoaren harira, guk uste dugu udalaz gaindiko konponbideak behar direla. Beharbada, udalaz gaindiko beste erakunde bat egin behar dugu, Zaldibar, Mallabia eta Ermua barne hartzen dituena, eta lurralde-mailako itunak edo politikak egin. Eta itun eta politika horiek eraginkorrak izan beharko lukete, lurzoru-arazo hauek konpontzeko.*

El Sr. Sáenz de Zaitegi manifiesta que, por retomar que lo que comentado Carlos, el tema del suelo industrial, nosotros creemos que necesita de solucione supramunicipales, creemos que los entes del Bajo Deba, Durangaldea con Mallabia, Zaldibar, Berriz igual tenemos que tener otro ente supramunicipal que abarque los municipios de Zaldibar Mallabia y Ermua y hacer pactos o políticas territoriales que tengan efectividad a la hora de afrontar estos problemas de suelo que tenemos.

*Guretzat eta ondoko herrientzat positiboak diren akordioak bilatu behar ditugu. Krisiaren L unean gaude. Jausi egin gara eta, orain, fase horizontalean gaude. Enplegua ez da mugitzen, lurzoruen prezioak ez dira mugitzen, etab. Denon artean egin behar diegu aurre erronka horiei, eta partaidetza eta interakzio handiagoa eragin behar dugu, eta nire ustez, gobernu-taldeak ez du horrelakorik egin.*

Tenemos que buscar acuerdos que nos repercutan positivamente tanto a nosotros como a nuestros vecinos. Estamos en el momento de la crisis de la L, hemos caído y ahora estamos en la fase horizontal, no se mueve el empleo no se mueven los precios de los suelos, etc. son retos que habrá que afrontar entre todos y cuanto más participación y cuanto más provoquemos la interacción que creo que en estos el equipo de gobierno no ha tenido.

*Gardentasunaz hitz egiten hasi gara, partaidetzaz hitz egiten hasi gara. Urtero, gehiago hitz egingo dugu eta gehiago jardungo dugu, baina, agian, ez da behar bezainbeste egin, eta uste dut konfiantza, gardentasun eta interakzio horiek behar ditugula, herriak benetan ekarpenak egin ditzan.*

Se empieza a hablar de transparencia, se empieza a hablar de participación. Cada año hablaremos y actuaremos más, pero igual es lo que ha faltado y creo que es lo realmente necesitamos tener esa confianza y esa transparencia, interacción para provocar que el pueblo aporte realmente.

*Parkeez mintzatzen garenean, ez gara Errege Magoentzako gutunaz hitz egiten ari; aurrekontuetatik dirua atera behar dela esaten dugu. Bost edo hamar urteko plan batean, esku-hartze bat egin daiteke, herrian eragina izango duten inbertsioen estrategia bat egin. Gure ustez, borondate politikoak formula eraginkorrak bilatu behar ditu.*

Cuando hablamos de parques, no hablamos de carta a los reyes magos, hablamos de sacar dinero de los presupuestos. Presupuestariamente es cuando se puede hacer una intervención de un plan de cinco, diez años intentar aportar o hacer una estrategia de inversiones que repercutan en el pueblo; creemos que la voluntad política tiene que buscar fórmulas que sean efectivas.

*Guk ezezko botoa emango dugu. Zuk esan dezakezu ezetz esaten diogula alokairuko etxebizitzari, edo industria-lurzoruari. Baina, egia esan, hasieran esan dugunez, ados gaude Plan Oroko honetan jasotzen diren alderdi askorekin. Hala ere, uste dugu ez dela interakziorik egon. Ez dugu uste Plan Orokorra bideratzeko modua onargarria denik, eta horren ondorioz, gure botoa ezezkoa izango da.*

Nosotros cuando estamos votando que no tú puedes decir que estamos votando que no a la vivienda en alquiler, al suelo industrial, etc., pero realmente al principio de la intervención hemos comentado que estamos de acuerdo en muchos de los aspectos que se recogen en este Plan General pero al final creemos que no ha habido esa interacción, la manera en la que se ha enfocado este Plan General no creemos que es aceptable y por ello nuestro voto es en contra.

*Lecumberri jaunak hau esan du: Urte asko daramatzat alderdi publikoan, eta ez Bizkaian soilik, eta ez nau batere harritzen Bilduk Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarekiko duen jarrerak. Ezezkoa beti; aurrerapenei, aldaketari, eraldaketari, erantzuna ezezkoa da beti.*

El Sr. Lecumberri manifiesta que, llevo los suficientes años en la cosa pública y no solamente en Bizkaia para que no me sorprenda en absoluto cual es la postura de Bildu respecto al Plan General de Ordenación Urbana de Ermua. La negativa siempre es ante el progreso, el cambio, la transformación, la respuesta es no.

*5.710 boto eta haiei dagozkien ordezkariak 1.429 boto eta haiei dagozkien ordezkarien kontra. Boto-ehuneko horrekin, ez dakit nork har dezakeen beretzat herriaren ordezkaritza. Zure ikuspuntua da, eta oso errespetagarria da, baina, mesedez, ez hartu zuentzat herriaren ordezkaritza.*

Los que vivimos en Ermua 5.710 votos con sus representantes correspondientes contra 1.429 con sus representantes correspondientes no sé en base a qué alguien se arroga con ese porcentaje de votos la representación del pueblo. Es tú visión, muy respetable, pero por favor dejar de arrogaros la representatividad del pueblo.

*Aurrekontuaren ikuspegitik, mugak daude, eta Plan Orokorrak zenbait dohain ditu; besteak beste, unitate batean sortzen diren ustiapenak ari gara ikusten. Eta zuek harrobiaren gaia aipatzen duzuenean, han jarduera bat dagoela ahaztu zaizue.*

Desde el punto de vista presupuestario las cosas tienen sus límites y si alguna virtud tiene este Plan General es que efectivamente estamos viendo aprovechamientos que se generan en una Unidad para poder actuar sobre….y cuando vosotros os planteáis el tema de la cantera, se os ha olvidado que allí existe una actividad.

*Bizi-kalitateaz hitz egin duzue. Jakina denok nahi dugula bizi-kalitatea. Baina duela gutxi, eta ez du ezer apartekorik esango, ekintzailetzaren aldeko apustu irmoa egin da, teknologien aldeko apustu irmoa egin da, zuntz optikoaren aldeko apustu irmoa egin*

Habláis de calidad de vida, claro que todos queremos calidad de vida pero no creo que revele nada extraordinario cuando no hace mucho se ha hecho una apuesta muy decidida por el emprendimiento se ha hecho una apuesta muy decidida por las

*da. Zertarako? Egun batean egunkarian azaltzeko? Ez. Adostasunez, adostasun handi samar batez, bizi-kalitatea, enpleguak eta abar sortzen saiatzen ari garelako. Kalitate handiko enpleguak sortzen eta balio erantsia sortuko duten enpresak etor daitezen ari gara saiatzen.*

tecnologías, se ha hecho una apuesta muy decidida por la fibra óptica, ¿para qué? para salir un día en un periódico…no porque estamos intentando con un consenso, vosotros no, con un consenso bastante generalizado calidad de vida, nuevos empleos, empleos de alta calidad que vengan empresas que generen valor añadido.

*Lurzorua jalkinez beteta genuenean, eta ahalegin handia egin ondoren, milaka metro koadro lortu ditugu industria-lurzorua sortzeko. Zertarako? Enplegua erakartzeko, inbertsioa erakartzeko; izan ere, horrek eragin ona izango du ongizatean eta bizi-kalitatean.*

Cuando teníamos colmatado el suelo y tras mucho esfuerzo hemos conseguido miles de metros cuadrados de suelo industrial para qué? para captar empleo, captar inversión porque eso va a redundar en el bienestar y en la calidad de vida.

*Hemen, herri batez, herritarrez, ermuarrez, ari gara hitz egiten. Eta nire ustez, lorpen hori erdiesten denean, poztekoa da. Jakina, zuek udalaz gaindiko erakundeak sortzea proposatzen duzue. Badakizue zer alternatiba proposatzen zen hemen? Bada, Elgoibarren ez dutenez jalkinez bete… niri, udalerri gisa, zer geratzen zait? Zer gertatuko zatekeen Monroerekin modu jakin batean jardun izan ez bagenu?*

Aquí estamos hablando de pueblo de ciudadanos de ermuarras y cuando se consigue ese logro creo que es para alegrarse; claro la alternativa que vosotros planteáis de crear entidades supramunicipales ¿sabes cuál ha sido la alternativa que se planteaba aquí….pues como en Elgoibar no se ha colmatado…a mí como municipio qué me queda, qué hubiera pasado con la Monroe si no se hubiera actuado de una forma determinada?

*Totorika jaunak hau esan du: Udal honetan, teknikariek ere funtzio bat dute, eta teknikariek zerbait legezkoa dela esaten badute, horrelakoa da hasiera batean, eta txosten bat arrazoizkoa dela esaten badute, irabaz dezaketela uste dutela esaten dutelako, euren eskubidean daude. Nik puja berde eder bat bota nahiko nuke, hemen epaiketa gutxi izan ditugulako eta ia guztiak irabazi direlako. Eta herri honetan, hirigintzak ez du zarata berezirik sortu. Baina gerta daiteke guk epaiketa bat galtzea, eta gerta daiteke Beatriz Yarzak edo beste edozein jabek epaiketa bat irabaztea. Ermuko Udalak denonak ziren hirigintza-gastu batzuk kargatu ditu, eta epaileak esan du gastu*

El Sr. Totorika manifiesta que, en este Ayuntamiento los técnicos también tienen una función y si los técnicos dicen que esto es la Ley es así en principio y si dicen que un informe es razonable porque dicen que creen que pueden ganar están en su derecho, es su obligación y esto es lo que hay. Yo quiero romper una lanza porque aquí prácticamente se han ganado todos los juicios, los pocos que hemos tenido y el urbanismo en este pueblo no ha generado ningún especial ruido pero también entiendo que podamos perder un juicio y también entiendo que Beatriz Yarza o cualquier otro propietario gane un juicio. El Ayuntamiento de Ermua ha cargado unos gastos de urbanización que eran de

*horiek ezin zaizkiela lursailen jabeei kobratu, gastuak herri osoarenak baitira.*

*Andela eta bidea Ermuko herritar guztiek ordaindu behar dute, baina niri Udalak arrazoizko jarrera izan duela iruditu zait. Kontrako egoeran egoteak kezkatuko ninduen ni; alegia, norbaitek Udalaren kontrako auzia jartzeak, interes orokorren ordez interes partikularrak defendatu dituelako. Akats tekniko bat da. Hori da aurreko epaiak esandakoaren azterketa laburra.*

*Eta epai berritik ondoriozta daiteke galdu egin dezakegula, eta zer? Ez da ezer berezirik gertatuko. Irabazien %20 jabeentzat gordetzeko eskatzen digute, eta hori niri gehiegi iruditzen zait; gainera, mozkinaren atzetik ez doazen gizabanakoez mintzatzen ari garela. Nire iritziz, Ermuko biztanleen interes publikoa defendatzeko, egokia da hurrengo organora eramatea, eta beste batek erabaki dezan epaia arrazoizkoa den edo akatsak dituen. Nik uste dut akatsak dituela. Ez dut esaten edukiekin bat ez natorrenik, baina uste dut ez dela behar bezala aztertu. Izan ere, etorri zareten guztiok dakizuenez, azterketan ez dira kontuan hartu Ermuko Udalak dagoeneko ordaindu dituen gastuak. Hortaz, hirigintza-kostuak txikiagoak dira. Epaiak ez du hori kontuan hartu. Bestalde, ez da kontuan hartu hirigintza-gastu partikularrak kontu horretan sartzen direla, nahiz eta ez ditugun zertan sartu. Zenbait akats daude, eta hori dela eta, eztabaidatu eta errekurtsoa jarri beharko genuke, eta hurrengo epaiak zer dioen ikusiko dugu. Litekeena da guk irabaztea, baina, edonola ere, interes publikoa eztabaidatuz defendatzen da, partikularren interesak zalantzan jarriz eta kontuak egiteko*

todos y el juez dijo que esos gastos no se les debiera cobrar a los propietarios de las parcelas porque los gastos son para todo el pueblo.

El depósito y el vial tiene que pagarlo todos los vecinos de Ermua, pero a mí me ha parecido que el Ayuntamiento ha mantenido una actitud razonable. A mí lo que me hubiera preocupado es encontrarme justo en la situación contraria y es que alguien demande al Ayuntamiento porque en vez de defender los intereses generales ha defendido los intereses particulares. Es un error técnico. Esto es el análisis simplificado de lo que la sentencia nos dijo anteriormente.

Y de la nueva podemos perder, claro y qué. No va a pasar nada especial. Me parece un exceso que nos exijan que reservemos un 20% de beneficios para los propietarios cuando además estamos hablando de individuos particulares que no buscan el beneficio. Creo que en lo procedente en la defensa del interés público de los vecinos de Ermua es discutírselo ante el siguiente órgano, tasación y que otro determine si realmente la sentencia es razonable o tiene errores; yo creo que tiene errores. No es que no comparta los contenidos sino que creo que no se ha analizado como es debido la cosa porque como todos los que habéis venido sabéis en el análisis no se ha contemplado los gastos que el Ayuntamiento de Ermua ya ha pago disminuyendo por lo tanto los costes de urbanización y eso no se ha contemplado en la sentencia y tampoco se ha contemplado que los gastos particulares de urbanización que no tienen que entrar en esa cuenta, entran. Hay errores que hacen creíble que debamos discutírselo, recurrir y veremos que dice la siguiente sentencia, es probable que ganemos pero en cualquier caso el interés público se defiende discutiéndoselo, discutiendo los beneficios de los particulares

*modua zalantzan jarriz, ez baita zuzena izan.*

y discutiendo la forma de echar las cuentas, porque no es correcta.

*Bilduk enpleguarekiko eta industria-lurzoruarekiko duen jarrerari dagokionez, enplegua besteen erantzukizuna dela pentsatzea asko uko egitea da, nire ustez. Nik ez dut hori egingo. Uko egitea iruditzen zait, eta ez dut egingo. Ermuko Udalak autonomia eta eskumena ditu. Gainera, Ermuaren kasuan, ekimen- eta finantza-ahalmena ere baditu, eta gauzatzen ari da, Ermuan industria-lurzorua prezio onean egon dadin.*

Respecto a la posición de Bildu en materia de empleo y de suelo industrial decir que, a mí me parece mucha renuncia pensar que lo del empleo es responsabilidad de otros. Yo no lo voy a hacer. Me parece una renuncia que yo no la voy a hacer. El Ayuntamiento de Ermua tiene autonomía, competencia y en el caso de Ermua hasta capacidad de iniciativa y financiera que ya la está desarrollando para que en Ermua haya suelo industrial y a buen precio.

*Gu beste udalerri batzuekin lurzoru mankomunatuetan parte hartzen ari ginen, denok dakizuenez. Izan ere, Mallabiko Industrialdea Ermuko eta Eibarko udalen ekimen bat izan zen. Gero, Mallabiko eta Zaldibarko udalek ere bat egin zuten, baina zeharka, baina ekimena gurea izan zen. Beraz, ez gaude lurzoruaren udalaz gaindiko kudeaketaren kontra, baina, ahal dela, ez genuke gure etorkizuna beste udalerri batzuen mendean utzi beharko. Guk egin dezakegu eta ez diogu aukera horri uko egingo; egiten ari gara, eta berrio diot merkeago ari garela egiten.*

Nosotros estamos participando con otros municipios en suelo mancomunados, como todos sabéis, porque Mallabiako Industrialdea fue una iniciativa de Ermua y de Eibar en la que acabaron participando los Ayuntamientos de Mallabia y de Zaldibar, de rebote, pero la iniciativa fue nuestra, es decir, no estamos en contra de la gestión supramunicipal de suelo pero en la medida de lo posible nuestro futuro no debemos hacerlo depender de otros municipios. Nosotros podemos hacer y no vamos a renunciar a esa oportunidad y lo estamos haciendo y repito lo de más barato.

*Gu lurzorua ari gara kudeatzen, jabeekin ditugun harremanen ondorioz, eta sinatu ditugun erosteko aukerei esker, eta erosteko aukera horiek guztiz indarrean daude. Bada, kudeatzen dugun lurzoru hori erdi-prezioan dago. Oro har, askoz merkeagoa da ekimen pribatuko eta publikoko lurzoruak baino. Prezio lehiakorra eta eraginkorra da, eta beste aukera bat da jendea Ermura etor dadin.*

El suelo que ahora mismo estamos gestionando nosotros en base a contactos con los propietarios y opciones de compra que tenemos firmadas y están plenamente vigentes está a la mitad de precio que otros suelos de hace mucho tiempo y a mucho más barato que en general los precios que desde el punto de vista de la iniciativa privada y pública se suelen conseguir, precio competitivo eficiente y otra oportunidad para que venga gente a Ermua.

*Legearen arabera, industria-lurzorua eskain dezakegu, eta legeak industria-lurzorua eskain dezakegula esaten duenez,*

La Ley dice que nosotros podemos ofrecer suelo industrial y como dice que podemos ofrecer suelo industrial y es una

*eta aukera bat denez, ez diogu horri uko egingo. Lurzoruaren Legeak esaten du plangintza ez dela aurrekontu publikoaren bidez finantzatzen. Instalazio pribatuen amortizazioa ez da herritarren kontura egiten. Plangintza eta Lurzoruaren Legea existitzen dira, batzuek ez badakizue ere, eta han esaten da nola finantzatzen diren.*

*Hirigintzak garapen adimentsua egin behar du; finantza-planak izan behar ditu, gastuak zein izango diren eta nork ordainduko dituen zehazteko.*

*Parke publiko bat egiteko jarduera ekonomiko bat lekuz aldatu behar bada, hori ez da herritarren kontura egiten, plangintzaren kontura baino; hori da plan orokor bat. Plan orokor batean ez da garapen bat proposatzen nola ordainduko den zehaztu gabe; nola ordainduko den zehaztu behar da.*

*Plan Orokorra bozkatuko da, Betiondoko Zatiko Planari dagokion zatia kenduta; beste une batean onartuko da.*

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso, Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Gisasola eta Araiztegi*

*Kontrako botoak: Sáenz de Zaitegi, Gómez eta Frontaura.*

oportunidad no vamos a renunciar a eso. Lo que dice la Ley del Suelo es que el planeamiento no se financia con presupuesto público. La amortización de instalaciones privadas no se hace a cargo de los vecinos. El planeamiento y la Ley del Suelo existen aunque algunos no lo conozcáis y allí se dice cómo se financian.

El urbanismo tiene que hacer un desarrollo inteligente, medido con planes financieros y donde se dice cuántos van a ser los gastos y quién los paga.

Los parques públicos se requiere el traslado de una actividad económica no se hacen con cargo al vecindario se hacen con cargo al planeamiento, eso es un Plan General. Un Plan General no es plantear el desarrollo diciendo…y alguien pagará; el Plan General tiene que decir cómo se paga.

Se pasa a votar la aprobación del Plan General con la consideración de que se retira para su aprobación en otro momento la parte correspondiente al Plan Parcial de Betiondo.

Votos a favor: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso, Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Gisasola y Araiztegi.

Votos en contra:, Sáenz de Zaitegi, Gómez y Frontaura.

***<u>Laugarren erabakia:</u>***

***Udalbatzarrak, 2014ko uztailaren 2an eginiko bilkuran behin-behinekotzat onetsi zuen Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.***

**<u>Cuarto acuerdo:</u>**

**El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 2 de julio de 2014 aprobó provisionalmente el Plan General de Ordenación Urbana de Ermua.**

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

***Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeak 2014ko urriaren 13an eginiko 4/2014 bilkuran hartutako erabakiaren ziurtagiria bidali du udal honetara, non Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legeak bere 91.2 eta 92.3 artikuluetan agintzen duen aldeko txostena eransten baitzuen, Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren onespen-espedienteari buruz.Aipatutako txosten horren II atalean ezartzen denez, Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeari buruzko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan agindutakoa betetzeko, behin honako txosten honetan jasotzen diren baldintzak beteta, behin-betikotasunez onetsi ahal izango da espedientea, Batzordeari iritzia eta txosten berririk berriro eskatu gabe.***

**Por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco se ha remitido a este Ayuntamiento la certificación del acuerdo adoptado en la sesión nº 4/2014 celebrada el 13 de octubre de 2014, en la que se incluye el informe favorable a que se refieren los artículos 91.2 y 91.3 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, respecto del expediente de aprobación del Plan General de Ordenación Urbana de Ermua.En el apartado II del citado informe se establece que “a los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidos los condicionantes contenidos en el presente informe, el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.”**

***Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren 2014ko urriaren 10eko ebazpenez, Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-inpaktuaren behin-betiko txostena egina dago, otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazio Prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezartzen den moduan.***

**Por resolución de fecha 10 de octubre de 2014 de la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, se ha formulado el informe definitivo de impacto ambiental del Plan General de Ordenación Urbana de Ermua, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero y en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.**

***Hori guztia ikusita Ermuko HAPOren berrikusketa idatzi duen taldeak testu bateratu bat egin du, bai Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordearen txostenean eta bai ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenean adierazitako kontsiderazio guztiak bilduz.***

**A la vista de todo ello, el equipo redactor de la revisión del PGOU de Ermua ha elaborado el texto refundido donde se han introducido todas las consideraciones puestas de manifiesto, tanto en el informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, como en el informe definitivo de impacto ambiental.**

*Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2015eko otsailaren 9an 677/13 prozedura arruntean egindako Sententziaren epaia ikusirik, non, Betiondoko SSU02 sektoreari dagozkion indarrean dagoen Ermuko HAPOaren erabakiak baliogatzen dituen.*

*Udal teknikariek 2015eko otsailaren 20ko datan egindako txostena ikusirik, non, salbu Betiondo eremuari buruzko erabakiak, TRION SLP-k landutako Ermuko HAPOren testu bateratuaren onespena proposatzen den.*

*Apirilaren 2ko Toki-jaurbidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 22.2c) eta 47.2.II artikuluetan ezarritakoaren arabera eta Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006ko legearen 91. artikuluari jarraiki ondoko erabakia hartzen da*

*ERABAKIA*

*LEHENENGO. Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra,"Betiondo" sektoari dagozkion erabakiak salbu, behin betiko onestea, baita ingurumena iraunarazteko dokumentua, non sektoreko txostenek eta Udal txosten teknikoek azaldutako aldaketak erantsi diren.*

*BIGARREN. Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ale bat paperean eta beste bat euskarri digitalean*

**Visto el fallo de la Sentencia de 9 de febrero de 2015 dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el Procedimiento Ordinario 677/13, por el que se anulan las determinaciones del vigente P.G.O.U de Ermua, en lo referente al Sector S.S.U. 02 Betiondo,**

**Visto el informe elaborado por los servicios técnicos municipales de fecha 20 de febrero de 2015, que propone la aprobación del Texto Refundido del P.G.O.U de Ermua, elaborado por TRION SLP, a excepción de las determinaciones relativas al ámbito de Betiondo.**

**De conformidad con lo dispuesto en los artículos 22.2.c) y 47.2.II) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con el artículo 91 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se adopta el siguiente**

**ACUERDO**

**PRIMERO. Aprobar definitivamente el Plan General de Ordenación Urbana de Ermua, a excepción de las determinaciones relativas al ámbito de "Betiondo", así como el documento de sostenibilidad ambiental, documentos ambos en los que se han incorporado las modificaciones resultantes de los informes sectoriales e informes técnicos municipales emitidos.**

**SEGUNDO. De conformidad con lo dispuesto en el art. 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se remitirá un ejemplar en papel y un ejemplar en soporte digital del Plan**

***bidaliko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailera, Plangintza Erregistroan gordetzeko.***

***<u>HIRUGARREN.</u> Honako erabakia Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeari posta ziurtatuz bidaltzea, bai eta ale oso bat (izapide administratiboaren udal espedientea eta fase guztietako agiri teknikoak barne) paper formatuan behar bezala izapidetuta eta behin betiko onespen-dokumentua formatu informatikoan, batzorde horrek gorde eta artxibatu dezaten.***

***<u>LAUGARREN.</u> Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan ezarritakoa betez, behin betiko onespen-erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Plangintzako Administrazio Erregistroan gordetzeko ale bat bidali ondoren. Behin betiko onespen erabakia, halaber, probintzian gehien irakurtzen den egunkari batean eta udal web guneako iragarkien taulan argitaratuko da.***

**General de Ordenación Urbana, al Departamento de Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, para su depósito en el Registro de Planeamiento.**

**<u>TERCERO.</u> Trasladar el presente acuerdo, mediante certificación, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, así con un ejemplar completo (incluyendo expediente municipal de la tramitación administrativa realizada y documentos técnicos en todas sus fases) debidamente diligenciado en formato papel y documento de aprobación definitiva en formato informático, para su archivo por esa Comisión.**

**<u>CUARTO.</u> En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, se publicará el presente acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Bizkaia, previa remisión de un ejemplar para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento. Asimismo, el acuerdo de aprobación definitiva se publicará en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia y en el tablón de anuncios de la web municipal".**

## *7. PEPCH|ERMUKO HIRIGUNE HISTORIKOA BABESTEKO ETA KONTSERBATZEKO PLAN BEREZIA BEHIN-BETIKO ONESTEA*

*Totorika jaunak hau adierazi du: Bilera asko egin ditugu plangintzak arlo horretan esaten duena hobetzeko. Egia esan, Plan Orokorraren helburu bati xehetasun-maila handiagoa ematen dion garapen bat da.*

## 7. APROBAR DEFINITIVAMENTE DEL PLAN ESPECIAL DE PROTECCIÓN Y CONSERVACIÓN DEL CASCO HISTÓRICO DE ERMUA

El Sr. Totorika manifiesta que, hemos trabajado en múltiples reuniones intentado mejorar lo que en este campo se dice en el planeamiento. Esto en realidad es un desarrollo que da mayor nivel de detalle a

*Helburu hori balio historikoa edo estetikoa duenari edo beste erakunde-esparru batzuek aintzat hartutako balio duenari eustea da. Herrian ditugun zenbait eraikinek baldintza hori betetzen dute. Hortaz, gure historia eta estetika hori mantendu eta errespetatu behar ditugu. Eta hirigune historikoa bizitza duen gune bihurtu behar dugu, eta aldi berean, bizitegi-erabilerei eutsi. Hau da, baztertutako gune bat ez izatea lortu behar dugu, hori gertatzen baita behar bezala kudeatzen ez denean. Izan ere, adinekoak bizi dira han, eta ekonomiaren edo gizartearen aldetik mugatuta dauden pertsonak ere bai, eta orduan, gune historiko horiek ez dira berreskuratzen.*

uno de los objetivos del Plan General que es el mantener siempre que tenga un valor histórico un valor estético y por supuesto si tiene un valor reconocido por otros ámbitos institucionales como son parte de las edificaciones que tenemos en el pueblo pues mantener y respetar toda la historia nuestra y esa estética y hacer del casco histórico una zona con vida a la vez que se mantengan usos habitables haciendo que no quede un espacio marginado como sucede en ocasiones cuando no se gestiona como es debido dado que hay personas mayores, personas limitadas desde el punto de vista económico o social, marginalidad y no recuperación de estas zonas históricas.

*Hitza emango diogu publikoko pertsona bati. Mikel Yarza.*

Cedemos la palabra a una persona del público. Mikel Yarza.

*Totorika jaunak hitza hartu eta hau esan du: Ez nekien ez genizula erantzun. Ez neukan prozeduraren zati horren berri. Eztabaida hau lehenago egin behar genuen. Ez dakit zerbait aldatuko zen ala ez, baina, behintzat, erantzun egingo genizun eta gauzen arrazoiak emango genizkizun, eskubide osoa duzu eta. Ados egon gaitezke ala ez.*

El Sr. Totorika manifiesta que, desconocía que no te hubiéramos contestado desconocía esa parte del procedimiento. Me hubiera gustado que este debate que vamos a tener ahora mismo lo hubiéramos tenido antes, no sé se hubiera cambiado algo pero por lo menos te hubiéramos dado una explicación y hubieras participado del por qué de las cosas que creo tienes todo el derecho. Se puede compartir o no.

*Zure logika ulertzen dut: Udalak eraikin historikoen mugak ez baditu betetzen, zergatik bete behar dituzte partikularrek?*

Entiendo la lógica que planteas de que si el Ayuntamiento se salta las limitaciones de los edificios históricos por qué no se las va a saltar un particular…

*Nik ez dakit asko arlo horri buruz, baina badut nolabaiteko eskarmentua. Nik dakidala, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan erakin historikoak berreskuratzean. Legezkotasun-txostenak egin behar dira, eta guk hori guztia betetzen dugu. Kontua da marjina daukagula ohiz kanpoko kasuei dagokienez, eta zuk ere marjina hori izan*

Yo desde mi limitado conocimiento en este campo pero algo de experiencia tengo, que yo sepa la recuperación de los edificios históricos está sujeto a múltiples aspectos con informes de legalidad y no nos lo saltamos; otra cosa es que tenemos margen como podrías tenerlo tú para considerar casos excepcionales.

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

*zenezake.*

*Nik dakidala, Lobiano berreskuratu denean, arkeologia-txosten bat egin zen. Txosten horretan, behealdea zegoen moduan utzi behar zela proposatzen zen, baina goialdean desberdintasuna markatuko zela. Eta ez zuten politikariek esaten, teknikariek baizik; txostenetan oinarrituta, arkitektoek eraikin historikoak berreskuratzeko adierazten dituzten logikak hartu zituzten aintzat.*

Que yo sepa cuando se ha recuperado Lobiano se tuvo un informe arqueológico, se hizo un informe en el que se planteaba que se respetara la parte baja tan y como estaba pero en la parte de arriba se marcará la diferencia y no lo decían los políticos lo decían los técnicos que en base a informes seguían las lógicas que plantean los arquitectos cuando están recuperando edificios históricos.

*Alegia, esan nahi dut ez dela iritzi-kontu bat, ez dela iritzi objektibo edo arbitrario bat. Izan ere, alderdi askok arautzen eta zehazten dute udalok ezin dugula edozer gauza egin, ez Lobianon, ez Torreta Etxean, ez beste leku batzuetan. Horrek apur bat argitzen du kontu honen zati bat.*

Quiero con esto decir que no ha sido una cuestión de opinión, opinable subjetiva o arbitraria sino que hay un montón de aspectos que regulan y que determinan que los Ayuntamientos no podemos hacer cualquier cosa ni con Lobiano ni con Torreta Etxea ni con otros. Eso aclara un poco parte de la cuestión.

*Udalak araudiak errespetatu behar ditu, eta partikularrek ere errespetatu behar dituzte, baina niri normala iruditzen zait hirigune historikoan zenbait muga jartzea, hirigune historiko gisa jarraitzea nahi bada. Oso ondo ulertzen dut partikular batek etxeko ganbaran beira-gune bat proposatzea. Ikuspuntu partikularretik, bat nator horrekin. Hala ere, kontuan izan behar da hirigune historikoetan horrelako esku-hartzeak mugatuta daudela, eta hortaz, ez dut uste, ahalegina egin izan bagenu ere, horrelako aldaketak –hau da, hirigune historikoko teilatu guztien estetika aldatzea– onartuko genituzkeenik. Zenbait salbuespen daude, esparru publikokoak, eta uste dut justifikatuta daudela. Zera azaldu nahi dut: hirigune historikoan bakoitzak bere teilatuan nahi duena egingo balu, agian ez genuke hirigune historiko bat, beste edozein gauza baizik.*

Desde el Ayuntamiento tenemos normativas que respetar y quería decir que los particulares también pero si el casco histórico se pretende mantener como casco histórico que se metan una serie de restricciones a mí me parece normal. Entiendo perfectamente que desde un punto de vista individual pensar que en la ganbara se plantee una zona de acristalamientos, desde el punto de vista particular la comparto, ahora que hay limitaciones en los cascos históricos para ese tipo de intervenciones también es verdad y por lo tanto dudo que haciendo une esfuerzo hubiéramos podido contemplar ese tipo de cambios y se hubiera cambiado la estética de todos los tejados del casco histórico. Hay excepciones públicas, supongo que justificadas y estoy intentando explicar que si en todo el casco histórico cada uno puede hacer en el tejado lo que le parezca conveniente puede que resulte que ya no tenemos un casco histórico sino que

quizás tengamos otra cosa.

*Bigarrenik, ez da egia eskatzen duzuna gaitzetsi dugunik, zeren eta zati bat onartu baitugu, proposatzen duzun garrantzitsuena; alegia, ganbara zure etxeko bizitegi-esparru erabiltzea. Horri baietz esan diogu, zuri eta beste guztiei, kasu horretan ezin baitugu banakako irizpiderik izan, nire ustez. Jakina, batzuei baietz esan dakieke, eta beste batzuei, berriz, ezetz, betiere, arrazoiak emanez. Esparru publikotik erabakiak hartzen direnean, denei eragin behar diete erabaki horiek. Zati hori onartu dugu, baina ez dugu onartu teilatuan erlaxatzeko gune bat jartzea. Ikuspuntu funtzionaletik, horrelako gune batek munduko logika guztia izan dezake, baina, hirigune historikoetan, estetika, historia eta abar errespetatzeko araudi bat beharrezkoa da.*

En segundo lugar quería decirte que no es cierto lo que dices de que se te desestimado porque sí se estima una parte, la más relevante de lo que planteas, que es que puedas utilizar como espacio residencial de tu casa la ganbara y a esa se te dice que sí a ti y a todos los demás porque no podemos tener criterios individuales, creo yo, a no ser que se justifique por sí a unos y no a otros, cuando se toman decisiones desde lo público deben de ser decisiones que afecten a todos se comparte esa parte de la estimación y no se comparte la de poder plantearte en el tejado un espacio de relax que como punto de vista funcional y como persona tiene toda la lógica del mundo pero lo que nos dicen es que en los cascos históricos tiene que haber una normativa de respeto de la estética, historia, etc.

*Erantzuna jaso ez izanak harritu nau, eta sentitzen dut elkarrizketa hau lehenago egin ez izana.*

En la parte de procedimiento me ha sorprendido que no se te haya contestado y lamento que no hayamos podido tener esta conversación anteriormente.

*Eusko Jaurlaritzako Ondare Zentroak eta aldundiek mugak jartzen dizkigute, eta esku-hartzeak egin ditugunean, goiko administrazioen oniritzia lortu dugu kasu guztietan, nik dakidala.*

Patrimonio del Gobierno Vasco y las Diputaciones nos ponen limitaciones y cuando hemos hecho intervenciones hemos conseguido en todos los casos, que yo sepa, el visto bueno de las administraciones superiores.

*Totorika jaunak hau esan du: Zer esaten duzun ulertzen dut, eta ikuspuntu pertsonaletik, ados egon naiteke. Baina, erakunde-ikuspuntutik, erakunde batek funtzio publikoak dituen eraikin bati buruzko erabakiak hartzen dituenean, ulergarria da marjina handiagoa izatea partikular batek baino. Esku-hartze bereziak izan dira, arrazoitu eta justifikatu direnak, baldintza guztiak betetzen dituztenak, eta esparru*

El Sr. Totorika manifiesta que, entiendo lo que dices y desde el punto de vista individual se puede compartir pero desde el punto de vista institucional una institución tomando decisiones sobre un edificio que cumple funciones públicas entiendo que tenga más margen de maniobra que un particular. Son intervenciones especiales que se han motivado, que se han justificado, que han cumplido todos los requisitos y que se

Código de validación/*Balidazio kodea*
5X0Y4U566U1R0Y0T0UMY

*publikoan eztabaidatu direnak. Eta zuzenak direla pentsatzen jarraitzen dut.*

*Hirigune Historikoa Babesteko Plan Berezian, irizpideak ezartzen dira, eta agian, jabe partikularrek eta tokiko administrazioak irizpide desberdinak hartu behar dituzte aintzat.*

*Argi utzi nahi dut pertsona publikoa eta pertsona pribatua bi pertsona juridiko desberdin direla eta erregulazio desberdinak dituztela. Ulergarria da pertsona batek administrazioak egiten duena egin nahi izatea, baina ezinezkoa da. Guk erabaki autonomo bat hartu behar dugu, goi-mailako erregulazioetan oinarrituta, hirigune historikoan bizi diren pertsona guztientzat; hortaz, denok aintzat hartu beharreko erregulazioa izango da.*

*Jarraian bozkatu egin dute gaia, eta emaitza ondorengoa izan da:*

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso, Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Gisasola eta Araiztegi*

*Abstenzioak: Sáenz de Zaitegi, Gómez eta Frontaura.*

***Bostgarren erabakia:***

***"Udalbatzarrak 2014ko martxoaren 12an eginiko bilkuran hasierako izaeraz onetsi zuen Ermuko Hirigune Historikoa Babesteko eta Kontserbatzeko Plan Berezia.***

***Hasierako onespen-espedientea 45 egunez erakutsi zen jendaurrean,***

han debatido en un marco público y sigo pensando que son acertadas.

Se establecen criterios en el PEPCH y esos criterios que se establecen igual no son los mismo para propietarios individuales que para la administración local.

Quiero matizar que la persona pública y la privada son dos personas jurídicas distintas con regulaciones distintas y que entiendo que desde el punto de vista individual se pretenda hacer lo mismo que la administración, pues quizás no es posible y lo que para nosotros tiene que ser una decisión autónoma con regulaciones de rango superior para el conjunto de que los que habitan en el casco histórico tiene que ser una regulación que les afecte a todos.

Seguidamente se procede a la votación con el resultado siguiente:

Votos a favor: Totorika, Prol, Araujo, López, Alonso, Clemente, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Marín, Gisasola y Araiztegi.

Abstenciones: Sáenz de Zaitegi, Gómez y Frontaura.

**Quinto acuerdo:**

**"El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 12 de marzo de 2014, aprobó con carácter inicial el Plan Especial de Protección y Conservación del Casco Histórico de Ermua (PEPCH).**

**El expediente de aprobación inicial se sometió a exposición pública por**

*Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 51. zenbakian, 2014ko martxoaren 14koan, martxoaren 14ko EL CORREO egunkariaren Gipuzkoako edizioan eta 2014ko martxoaren 14tik apirilaren 28ra Korporazioaren iragarkien taulan iragarkia argitaratuz.*

**plazo de 45 días mediante anuncio insertado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 51, correspondiente al día 14 de marzo de 2014; en la edición Gipuzkoa del periódico EL CORREO de fecha 14 de marzo; y en el tablón de anuncios de la Corporación, entre los días 14 de marzo y 28 de abril de 2014, ambos inclusive.**

